TOKIKOM

aikor!

txorierriko a

2019ko uztaila | 194. zenbakia

Lurdes Prudencio

Eskerrik asko, andereño!

BustiZaitezLagatzuEgunaLarrabetzuEtaLezamakoJaiak

Zu hemen zaude, AEK ere bai

EUSKARA-IKASTAROAK

Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia

Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1

Talde txikiak eta giro ona.
Eskarmentu handiko irakasleak

Herrian bertan ikasteko aukera

Autoikaskuntza

Online-ikastaroak

Matrikula zabalik, irailaren 27ra arte

Gorbea kalea 5, behea, Derio **94 454 39 67 / 607 59 87 94**

txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

HABE
Maila egiaztatuta

BIZKAIKO ALDUNDIA
Euskara-eskura txartela

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

LARRABETZUKO UDALA

4 Eretxiak
5 Laburrak eta albisteak
11 Irudietan... Werner Stiebel, erromesa
12 Gurean izan da... *Busti zaitez* kanpaina
14 Lagatzu Eguna, Zamudion
16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
18 2.000 mendietako kluba
20 Gai nagusia... Lurdes Prudencio, andereñoa
24 Larrabetzuko jaiak
28 Lezamako jaiak
32 BBK Legends Festival jaialdia
34 Ispiluan... Elkar zaintzea
35 Aikorrizketa... *El catalá*
36 Sukaldaritza
37 Denborapasa
38 Agenda

14 Lagatzu Eguna, Zamudion

24 Larrabetzu eta Lezamako jaiak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Txorierriko Mankomunitatea
diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

2015 Bikain euskararen kalitate ziurtagiria

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Jon Ander Rola, Maitane Apodaka, Einer Larrabeiti, Idoia Andres, Jon Goikouria Larrabeiti, Gaizka Peñafiel, Itallen bertso eskola eta Jose Angel Mentxaka
Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo
Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)
Banaketa: Egunon
Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza
Inprimategia: Gertu
Ale kopurua: 8.000
Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Sare sozialak

JON ANDER ROLA
Irakaslea

Orain dela 20 urte inguru, nire aurrean ordenagailu bat ikusi nuenean lehenengoz, pentsatu nuen piztia hori gobernatzea hurrengo belaunaldiei tokatuko zitzaiela eta nik neuzkan ofimatikako ezagupen urriekin nahiko izango nuela ordenagailuetan idazteko. Ordutik hona teknologia ezagutu nahian (IKT masterra, ikastaroak…) ibili naiz, baina beti pausu bat atzerago, kirolari dopinarekin gertatzen zaion bezala.

Eta apurka-apurka gaurko gizartera heldu gara, non sare sozialetan ez bazaude ez zaren inor. Eta hain indartsua den ideia hori gure seme-alabei heldu zaie. Hamabi urte dituztenerako beharrezkoa ikusten dute mugikorra erostea bere hurkoekin harremanak izan ditzaten (gu umeak ginenean harremanak izan ez bagenitu bezala). Eta guk, inozook, erosi egiten diegu kontrolatuago izango ditugulakoan. Lehengo egunean aditu bati entzun nion ume bati mugikor bat ematea tximino bati arma bat ematea bezalakoa zela, idatzitakoari eta batez ere zintzilikatutako argazkiei behar bezalako garrantzia ematen ez dietelako.

Sare sozialek dituzten abantailak (informazioa eskuratu ahal izatea, komunikatu ahal izana) arrisku dira era berean, jasotako informazioa *fake news* izan daitekeelako eta komunikatzeko erabiltzen diren bideak (Whatsapp taldeak, Instagram…) mintzeko erabil daitezkeelako. Baina ez bakarrik hori: aurrean duten pertsonak ezagutu barik harremanak izatera ohitu egiten dira; sare sozialetan agertzen diren profilak gezurrezkoak edo gutxien jota idealizatuak dira (ez gara gu, gure ikuspegi perfektua baino); aurpegia eman gabe iraintzeko ahalmena ematen dute; eta bizilekuz aldatu izan arren, ez zaude irainetatik salbu.

Gainera, LSDarekin 60ko hamarkadan gertatu zen bezala, ez dakigu zein diren teknologia berriek sor ditzaketen ondorioak, bai garunean, bai maila emozionalean. Gaixotasun berri batzuk ezagutzen ari dira arazo honi lotuta: nomofobia (norberaren mugikorretik beti gertu egon behar izatea), onlineko jokoekiko adikzioa...

Nik lan egiten dudan ikastetxean, azken hamar urteetan ikasleen harremanei dagokienez izan ditugun arazo handienak sare sozialak tartean daudela izan dira: *ciberbulling*-a, argazki desegokiak zintzilikatu eta partekatu...

Arazo larria aurrean daukaguna. DENOK.

Ikusezin izan direnak ikusgai bilakatzen

Patricia Bath, Kathrine Switzer, Hedy Lamarr, Hipatia, Billie Jean King, Ann Makosinski. Ziur asko, aipaturiko izen guztiak ezezagunak egingo zaizkizu, eta baliteke horiek emakumeen izenak direla konturatu izana. Halaxe da, denak dira emakumeak, baina Historiatik ezabatuak, beste hainbat bezala. Kataratak operatzeko laserraren asmatzailea, 1967an Bostoneko maratoia dortsalarekin amaitu zuena, gaur eguneko wifi-aren hastapenak asmatu zituena… Aipatutako emakumeak ekarpen handiak egin dituzte kirol arloan, matematikan, fisikan… Baina, zer dela eta ez ditugu ezagutzen? Zoritxarrez, oraindik ere gizarte androzentristan bizi garelako, emakumearen ekarpenak alde batera utzi eta gizonek egindakoa aintzat hartzen duena. Eta jasotzen dugun hezkuntzak badu zeresanik. Zergatik berdintasuna bultzatzea helburu duen eskola batek ez ditu emakume horien ekarpenak irakasten? Ekarpen handiak egin dituzten emakumeak izan dira, badira, eta izango dira. Bada garaia hezkuntzak ere kontuan har ditzan, neskek emakumezko erreferenteak izan ditzaten eta emakumeek gizartean merezi duten aitorpena jaso dezaten.

MAITANE APODAKA
Lehen Hezkuntzan graduduna

Gela Pedagogikoak emakumezkoen taldea izango du 2020rako

a: Gela Pedagogikoa

Miguel Madariagak zuzentzen duen Gela Pedagogikoak emakumezko txirrindularien taldea ipiniko du martxan datorren urtean. Taldean 19 txirrindulari egongo dira, kadete eta gazte mailetan, eta txirrindularitzaren modalitate guztietan hartuko dute parte: errepidea, pista, ziklo-krosa eta mendia.

Egitasmoak txirrindularitzan parekotasuna bultzatzea du helburu, eta Madariagak eta Iñaki Zaratek zuzenduko dute. Haiekin batera, hauek osatuko dute lantaldea: Joseba Gorostiza, Marimar Sainz, Ibai Lejarraga, Xabier Murias eta Beñat Vera.

Bestalde, emakumezko txirrindularientzako osasun-zentroa ere atonduko da –Osasun Centrum–, eta bertan mediku traumatologo bi, nutrizionista bat eta psikologo bat egongo dira. Egitasmoak Gela Pedagogikoaren instalazioetan izango du egoitza, Derioko Seminarioan hain zuzen ere.

Tabernetan txorroko ura kontsumitzeko kanpaina, Larrabetzun

Plastikozko ur-botilen ordez, herriko taberna eta jatetxeetan txorroko ura erabiltzearen aldeko kanpaina ipini du martxan Larrabetzuko Udalak. Horretarako, eta Ur Partzuergoaren laguntzarekin, berrerabiltzeko kristalezko ur-botilak banatu dituzte doan. "Helburua da botila horietan bezeroei txorroko ura eskaintzea", aipatu dute.

Azaldu dutenez, arrazoi bi daude txorroko edo iturriko ura edateko: alde batetik, hondakin gutxiago sortzen da eta, ondorioz, kutsadura murriztu egiten da; eta bestetik, dirua aurrezten da. "Gainera, iturriko ura da gehien kontrolatzen den elikagaia. Kalitatea eta garbitasuna bermatuta daude".

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Hiru informazio-taula mugitu behar izan dira Lezaman

Duela hilabete batzuk, Lezamako Udalak informazio-taula batzuk ipini zituen herrian, bakoitza leku esanguratsu batean. Lezama Bizirik elkartearen ustez, tauletako batzuek –Andra Mari eliza, Kurtze ermita eta Atheticeko instalazioen ondokoak (Done Jakue bidea)– ez zuten Euskal Ondareari buruzko legea betetzen, eta udalari eskatu zioten kentzeko. Udalak ezetz erantzun zien eta elkarteak foru aldundira jo zuen; udalak ere eskaera bat aurkeztu zuen aldundian, informazio-taulak ipini ahal izateko.

Aldundiak taulak ipintzeko baimena eman dio udalari, baina ñabardura batzuekin. Alde batetik, Andra Mari elizak babes berezia du, eta, horregatik, haren ondoan ipinitako informazio-taula zein Sabino Arana plazan jarritakoa 15 metrora mugitu behar izan dira. Bestetik, Kurtzeko ermitak babes-eremurik ez du, baina, aldundiak jaso moduan, informazio-taularen kokapena ez zen egokia, ez baitzuen ahalbidetzen eraikinaren ikuspegi integrala eta oinezkoen zirkulazioa eragozten zuelako. Hori dela eta, informazio-taula sei metrora mugitu da. Azkenik, Ondare Saileko teknikariek ez dute beharrezkotzat jo Athleticeko instalazioen ondoko informazio-taula mugitzea. Jon Ander Aurrekoetxea alkateak azaldu zuenez, orain 10 urte ingurutik hona errepide hori ez da forala, herrikoa baizik.

Informazio-taulak bisitariak herrira erakartzeko jarri ziren, eta, horretarako, hitzarmen bat egin zen Athleticekin. Informazio-tauletako alde batean, lekuaren edo ondare-eraikinaren gaineko informazioa dago; eta beste aldean, futbol taldekoari buruzkoa.

Goian bego "fielatoa"

Uztailaren 3an, 80 urte zituela, Koldo Agirre Athleticen futbolari ohia hil zen Bilbon. Sondikoztarra talde zuri-gorriaren historiako futbolari handienetarikoa izan zen. Erdilari fina izan zen, jokoa eraikitzen duten horietakoa, eta, horregatik, fielatoa" esaten zioten. Garai batean, "fielatoek" dena antolatzen zuten merkatuetan. Agirrek utzi digun ondarea itzela da. Hainbat urte eman zituen klubean, jokalari ez ezik, entrenatzaile eta ordezkari ere. Guztira, 12 denboraldi eman zituen Athleticen futbolari, 1958tik 1969ra bitartean. Erdilariak 302 partida jokatu zituen, eta 63 gol sartu. Tarte horretan, kopa bi irabazi zituen, 1958an eta 1969an.

Ostean, entrenatzaile aritu zen. Bilbao Athleticen teknikaria izan zen; eta 1977tik 1979ra bitartean, Athleticena. Agirre lehenengo taldeko zuzendaria zela, 1977an, Athleticek final bi galdu zituen: UEFA Kopakoa, Juventus talde handiaren kontra; eta Kopakoa, Betisen kontra penaltietan. "Porrot horiek biak dira Athleticen ditudan gogorapen txarrenak", aitortu zuen 2006ko urrian, AIKOR! aldizkariak egindako elkarrizketa batean.

Azken aurreko zerbitzua

Agirrek 1979an utzi zuen Athletic, eta ondoren, Hercules, Logroñes, Mallorca, Lleida eta Valentzia taldeak entrenatu zituen. Valentzian egon zela, azken aurreko zerbitzua eskaini zion Athletici, Liga irabazten lagundu ziolako. Izan ere, 1983an, bere taldea 1 eta 0 nagusitu zen Erreal Madrilen kontra Ligako azken partidan. Bitartean, Athleticek 1 eta 5 irabazi zion Las Palmas taldeari, eta, ondorioz, Liga irabazi zuen. "Horri esker, Athleticek gabarran paseatzera gonbidapena egin beharko zidan", esan zigun txantxetan.

1992an Athleticera itzuli zen, beheko kategorietako entrenatzailea izatera. Eta zelaitik bulegora pasatu zen: teknikaria izatetik klubaren ordezkaria izatera. Athleticen webgunean duela hiru urte argitaratutako elkarrizketa batean, Agirrek hau esan zuen talde zuri-gorriari buruz: "Betiko jarraituko dugu horrela, desberdinak gara eta harro sentitzen naiz klub honen barruan hainbeste esparrutan parte hartzeaz". Koldo desberdina zen eta gure gogoan izango da. Goian bego!

Zamudio KE Ohorezko Mailara jaitsi da

Zamudio Kirol Elkarteak ezin izan dio mailari eutsi azkenean, eta Hirugarren mailatik Ohorezko Mailara jaitsi da. "Hasieratik ibili gara txarto. Lehenengo partiduetan gol asko jaso genituen eta ez ginen garaipenak lortzeko gauza izan. Urtarrilean, Carlos Docando izendatu genuen entrenatzaile, Gorka Ruedaren ordez: aurten, klubak lehenengo aldiz aldatu du entrenatzailea denboraldiaren erdian. Talde ona genuela uste genuen, baina gazteak oso kaskar ibili dira eta eskarmentu handikoek ez dute mailarik erakutsi", azaldu digu Fidel Prado taldeko presidenteak.

Talde zuria 16. postuan geratu zen Ligan, jaitsierako postuetatik kanpo, baina zorte txarra izan du, aurten ohikoa den baino talde gehiago jaitsi direlako: ligako azken hirurek –Ordizia, San Pedro eta Bermeo– maila galdu zuten; lehenengo laurek –Portugalete, Sestao, Alaves B eta San Inazio– igotzeko kanporaketa jokatu zuten, baina bakarrik arabarrek lortu zuten igotzea; eta Bigarren B Mailatik hiru talde euskaldun jaitsi dira: Gernika, Vitoria eta Durangoko Kulturala. Horrek ekarri du 17. eta 16. postuetan zeuden taldeak jaistea: Amurrio eta Zamudio.

"Pena da horrela jaitsi izana, hiru azkenen artean geratu ez garelako, baina tira… Egoera berrira egokitzen gabiltza. Datorren urteari begira, erabateko aldaketa egingo du Fidel Pradoren taldeak. Teknikari berria Josue Atela izango da, Erandio taldeko entrenatzaile ohia. Halaber, jokalari gehienak berriak izango dira: "Gazte taldeko futbolari bik, Juan Sanzek eta Lander Ortizek, denboraldi aurrea egingo dute lehenengo taldearekin; gainerakoak Ohorezko Mailako jokalariak eta Hirugarren Mailako taldeek nahi ez dituzten jokalariak izango dira".

Zamudioztarrek talde sendoa osatu nahi dute, datorren urtean onenen artean ibiltzeko, baina Hirugarren Mailara itzultzea ez da erraza izango, zuzenean bakarrik ligako txapelduna igoko baita. "Behintzat, herrian etengabe eskatzen dizkidaten derbiak jokatuko ditugu. Izan ere, Derio, Sondika eta Uritarra talde txorierritarrek ere Ohorezko Mailan jokatuko dute. Ea horrela jende gehiago datorren partidak ikustera. Batzuetan atzerapauso bat eman behar da, aurrera pauso bi emateko".

Desgaitasuna duten lagunentzako prestakuntza

EGAZ Txorierrik, Txorierriko Mankomunitatearen Sustapen Ekonomiko eta Enpleguko Zerbitzuak, merkataritza eta marketinaren inguruko prestakuntza emango die 10 laguni merkataritzako jarduera osagarriei buruz. Parte-hartzaileek praktikak egingo dituzte enpresetan eta, gainera, lanean hasteko aukera handiak izango dituzte. Ikastaroa desgaitasuna dutenentzat edota diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzen dutenentzat da, baita beste kolektibo behartsu batzuentzat ere, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailak % 100ean lagunduko du diruz. Parte-hartzaileek baldintza hauek bete behar dituzte: langabeak izan, Lanbiden izena emanda egon eta Bizkaian erroldatuta egon.

Ikastaroa irailaren 9tik azaroaren 12ra bitartean egingo da 09:00etatik 14:00etara. Izena emateko epea irekita dago eta 94 453 63 70 telefono zenbakira deituta egin daiteke, enpleo@txorierri.eu helbide elektronikora idatzita edo EGAZ Txorierriren egoitzan bertan (Txorierri Etorbidea 46, 13. pabiloia, Sondika).

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Artxandako ur-andel berria lur azpian egongo da

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa ur-andel berria egiten dabil Artxandan, Sondikako lurretan. Ur-andel berriak zaharra ordezkatuko du eta Sondika, Derio, Zamudio eta Bilboko auzo batzuk hornituko ditu. Nerea Landaburuk, Ur Partzuergoko hornidura-proiektu eta -obretako zuzendariordeak, Bilbao Irratian adierazi zuen moduan, ur-andel berria lur azpian egingo da paisaian integratzeko, eta lursailean umeentzako jolas-parke bat atonduko da.

Ur-andel berriak 2.000 metro kubiko edukiera izango du, gaur egungoak baino bost aldiz gehiago, eta 7.000 herritar hornituko ditu. Lanek 4,38 milioi euroko aurrekontua dute eta espero da datorren urtearen hasierarako amaituta egotea.

Gorondagane eskolako teilatua konpontzeko lanak hasi dira

Sondikako eskolak itoginak ditu eta hezetasuna dago barruan. Ikasturtea amaituta, eraikineko teilatua konpontzeko lanei ekin diete, arazo horiei erantzuna emateko. Lanek lau hilabete iraungo dute eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ordainduko ditu: 300.000 euro inguru. Bestetik, Sondikako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak iragarri zuten moduan, eskolako patioari estalkia ipiniko diote 2020rako.

Lezamako Mugetatik lasterketan izena emateko epea, zabalik

a: Gaizka Peñafiel

Lasterketa irailaren 1ean egingo da 14. aldiz. Korrikalariek horrela eskatuta, ibilbidea apur bat laburragoa izango da aurten: 25 kilometro; eta 1.100 metroko desnibela edukiko du. Izen-ematea www.lezamakomugetatik.eus webgunean egin behar da.

Betiko moduan, hiru saio egingo dira: lasterketa, mendi ibilaldia eta txikien ibilaldia. Gainera, lehenengoaren barruan beste lasterketa berezi bat, Ganguren ziztu bizian, egingo da bosgarren aldiz. Tarte horrek hiru kilometro eta erdiko luzera eta 400 metroko desnibela izango du; lasterketaren 13,5 kilometroan hasiko da, Lezamako Dorrearen inguruan, eta Ganguren amaituko da. Lasterketan hiru kategoria egongo dira: senior, beteranoak eta Lezama, bai emakumezkoen mailan, bai gizonezkoen mailan.

Ibilaldia 8:00etan hasiko da; eta lasterketa eta txikien ibilaldia, 09:30ean. Umeek ordu bi eta erdi emango dute ibilbidea osatzeko, eta haur bakoitzarekin batera nagusi batek joan beharko du. Antolatzaileek egun horretan giro ederra egotea espero dute.

Prezioak

Abuztuaren 30a baino lehenago ordainduz gero, ibilaldian edo lasterketan izena emateak 14 euro balio du; 15 euro, lasterketaren egun berean ordaintzen bada. Hala ere, federatuta ez daudenek 19 euro ordainduko dituzte abuztuaren 30era arte; eta 20 euro, irailaren 1ean. Lezamarrek, aldiz, zortzi euro ordainduko dituzte; eta umeek, bost euro.

Parte-hartzaileek kamiseta bana jasoko dute izen-ematearen truke. Era berean, ibilbide osoa egiten duten kirolzaleek zenbait sari lortuko dituzte parte-hartze hutsagatik: kirol arropa eta Lezamako produktu naturalak, hain zuzen ere. Gainera, lehenengo sailkatuek txapela eta Jesus Jauregi eskultore lezamarraren eskultura-garaikurra jasoko dituzte. Ganguren ziztu bizian lasterketaren txapeldunek ere lortuko dute garaikurra.

Bizikletak aparkatzeko zerbitzua, Zamudioko tren-geltokian

Bizikletak aparkatzeko gunea erabili ahal izateko, Euskotreneko bezeroek izena eman behar dute Zazpi Kaleetako geltokiko bezeroaren arreta-bulegoan, eta garraio-txartel hauetako bat izan behar dute: BARIK (Bizkaia), BAT (Araba) eta MUGI (Gipuzkoa). Horrezaz gainera, txartelak pertsonalizatuta egon behar du, eta zuzen erabiltzeko modukoa izan behar da.

Gunera bakarrik Euskotrenen bidaia bat egin aurretik edo ondoren sartu ahal da, eta bizikleta lau egunean utzi ahal da bertan. Lau egun baino gehiago pasatuz gero, Euskotreneko langileek aparkalekutik aterako dute bizikleta. Era berean, instalazioak txarto erabiltzen badira, garraio-txartelaren bidezko sarbidea ukatuko da. Bizikletak aparkatzeko guneak eta geltokiak ordutegi bera dute. Euskotrenek Zamudioko Udalarekin elkarlanean eskaintzen du zerbitzua.

Informazio gehiagorako: 94 433 33 33 telefono-zenbakia, Zamudioko geltokia, bezeroaren arreta-bulegoa eta www.euskotren.eus webgunea.

Larrabetzuko Gazte Eguna

Hori Bai Larrabetzuko gaztetxearen kideek Gazte Eguna antolatu dute uztailaren 27rako. Goizeko 11:30ean gazte asanbladen arteko olinpiadak egongo dira; eta 14:30ean, bertso bazkaria. Bertan bertsolari hauek hartuko dute parte: Lurdes Ondaro, Garazi Navarro eta Aitor Bizkarra.

Ttek! Elektrotxarangak herria girotuko du 20:00etatik aurrera, eta 22:30ean ekitaldia egingo da. Agertokira musika talde hauek igoko dira aurten: Brigade Loco, Kop eta Bad Sound. Kontzertuen ostean, djak izango dira gaztetxean: Reimy, Little Martin Selektah eta Droga Purpura.

Kubako iraultza, Oxangoitin

Kubako iraultzak 60 urte beteko ditu uztailaren 26an, eta, urteurrenaren harira, Oxangoiti Lezamako elkarteak kontzertu berezia antolatu du egun horretarako. Gainera, kontzertu hori "Azken barikuak" musika-ekimenaren udako azken emanaldia izango da. Orlis Pineda bakarlari kubatarrak musika-saioa eskainiko du 20:00etan, Oxangoiti tabernan.

Bestalde, uztailaren 28ra arte "Kuba: Iraultza Sexu-Anitza" erakusketa egongo da tabernan, Euskadi-Cuba elkartearen eskutik. "Azken barikuak" kontzertu-saila irailaren azken barikuan itzuliko da.

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Sondikoztarrak bat, euskararen alde

Altzora Sondikako euskara elkarteak Altzora Eguna ospatuko du irailaren 21ean. Ospakizun berezia izan ohi da, antolatze-lanetan zein eguneko ekintzetan herriko talde guztiek parte hartzen dute eta. Bakoitzak bere baliabideen arabera egiten dio ekarpena jaiari, eta euskara lau haizetara zabaltzen dute guztiek batera. Hori pozik baino pozago egoteko arrazoia da euskara elkarteko kideentzat.

t: Itxaso Marina / a: Roberto Gomez "Txiki"

Gainerako euskara elkarteen moduan, Altzorak Sondikan euskara zabaltzea du helburu. Ospatzeko eguna ez ezik, aipatutako xedea betetzeko tresna ere bada Altzora Eguna. "Gurea ez da oso herri euskalduna eta gustatuko litzaiguke euskara eguneroko bizitzarekin lotzea. Izan ere, gazteek, adibidez, euskara batez ere ikasketekin lotzen dute. Giro euskalduna sortu nahi dugu; euskaraz bizi, azken batean", azaldu du Idoia Aurrekoetxea elkarteko kideak.

Egitarau zabala antolatu dute Altzora Egunerako. Goizeko 11:30ean, Hegaztien erakustaldia egongo da Ikurrinaren plazan, eta 12:30ean *Nire gorputza da flash mob*-a egingo da, Garrasia talde feministaren eta Gorondagane guraso elkartearen eskutik. Ondoren, dantza-poteoan irtengo dira. "Hori Ipar-Elaiak txistu taldeak eta Gorantzaileak dantza taldeak girotuko dute. Egia esan, herriko elkarteek oso ekarpen garrantzitsua egiten diote Altzora Egunari: aurreko lerroetan aipatutako taldeez gainera, besteak beste, Hegalariak taldeak, Txuma Olagüe abesbatzak eta Pentagrama akordeoi elkarteak ere hartzen dute parte jaian, eta Sondikako futbol taldekoak txosnaz arduratzen dira. Hasiera-hasieratik oso ondo erantzun diote gurekin Altzora Eguna ospatzeko proposamenari".

Herri-bazkarirako txartelak 19 euroan ipini dituzte salgai helduentzat; eta 12 euroan, umeentzat. Sagardotegiko menua eskainiko da, eta txartelak Egarri tabernan, txosnan edo Batzokian eskuratu daitezke irailaren 16ra arte. Baita 635 75 35 95 telefono zenbakira deituta ere. Bazkalondoa Taberna Ibiltariak girotuko du. "Hirurehun lagun inguru batzen gara ospakizunean eta oso giro polita sortzen da: herriko jende askok hartzen du parte oso modu baikorrean eta alaian. Guk oso garrantzitsutzat jotzen dugu egun hau gainerako sondikoztarrekin pasatzea, eta espero dugu herritarrek aurten ere gure deiarekin bat egitea".

> *"Oso garrantzitsutzat jotzen dugu egun hau gainerako sondikoztarrekin pasatzea"*

Ekarpenak

Garrasia Sondikako talde feminista duela hilabete batzuk sortu zen, eta aurten lehenengo aldiz egongo da Altzora Egunean. "Jaian herriko beste taldeekin batera parte hartzeko proposamena egin izanak harro sentiarazi gaitu: ederra da herriko talde guztiak batu eta zerbait antolatzea; euskararen alde, gainera", esan dute talde feministakoek. Elkartea sondikoztarrak feminismora hurbiltzeko eratu dute, eta batzuek feminismoaren inguruan izan ditzaketen uste okerrak argitzeko. "Hori da Sondikan egingo dugun ekarpen nagusia, baina Altzorak euskara sustatzen du eta euskara izango da protagonista hain zuzen ere irailaren 21ean".

Hegalariak areto-futbol taldekoek, berriz, esperientzia handiagoa dute Altzora Egunean. "Asko disfrutatzen dugu egun horretan, eta bai jaian bertan, bai herrian sortzen den giroa izugarri gustatzen zaigu", aipatu du Oskar Eguskizak, taldearen sortzaileetariko bat eta Sondikako zinegotzia. "Euskaldunak zirela ez genekien pertsonekin egiten dugu topo, eta horiekin euskaraz hitz egitea berezia izaten da. Gainera, gero ere gure artean euskaraz egiten jarraitzen dugu". Areto-futboleko jokalariak ahal duten guztietan azaltzen dira Altzora Egunean laguntzeko prest. "Gu beti gaude edozein ekintzatan parte hartzeko prest. Bestalde, ekintza honetako prestatze-lanetan guztiok hartzen dugu parte, hau da, guztion artean erabakitzen dugu zer egin". Aurten ere herriko beste elkarteetako kideekin batera ospatu eta aintzat hartuko dute Altzorak Sondikan euskararen alde egiten duen lana.

Werner Stiebel I Pausoka eta bueltaka

Gernika eta Bilbo artean, Zamudion, 63 urteko Werner Stiebel dabil, pausoka eta bueltaka. Irunetik Santiagoko bidea egiteko asmoa dauka, sei astean. GPS eta mapa bat baliatuta, 27 kilometroko etapa egiten harrapatu dugu egun euritsu batean, galduta. Zamudion geziak desagertzen direla adierazi du, baina, hala ere, zuzen dabil Monte Avrilerantz. Ez darama pisurik aldean: gerrira lotuta daukan karro batean 25 kilo garraiatzen ditu. Donejakue Bidea bizitzan behin egin beharreko esperientzia dela esan digu irribarrea galdu barik.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Werner-en antzekoen erromes tropela Santiagora bidean oinez doazela. Bada erromes danek jakin dagiela Euskal Herrian zehar pasatu direla.

Itallen Bertso Eskola

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Busti egin gara

BUSTI ZAITEZ KANPAINA

Uztailaren 14an, Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitza Fundazioak *Busti zaitez* kanpaina egin zuen Euskadin 22. aldiz. Guztira, Euskadiko 80 udalerrik hartu zuten parte ekintzan; eta horien artean, Derio eta Zamudio. Txorierritarrok ere busti egin gara.

t: Gaizka Eguzkitza

Lehenengo kanpaina Katalunian egin zen 1994an. Euskadira, Barakaldoko Gorostitzako igerilekuetara, lau urte geroago heldu zen, 1998an. Busti zaitez kanpainak esklerosi anizkoitza duten gaixoei eta euren senideei elkartasuna adieraztea du helburu. Gainera, sentsibilizazio-kanpaina ere bada, beraz, gizartean gaixotasuna ikusgai egin nahi du, hau da, esklerosiak sortzen dituen arazoak gizarteari jakinarazi. Azkenik, kanpainaren bidez, dirua batu nahi dute, elkarteek gaixoei eskaintzen dizkieten errehabilitazio-zerbitzuak finantzatzeko.

Ildo honi jarraituz, oso garrantzitsua da merchandising-produktuak saltzea. Marrazkia, kanpainaren irudia, Mikel Urmeneta marrazkilari nafarrak diseinatu du. Kukuxumuxu enpresako buru ohiak urtero hartzen du parte Busti zaitez kanpainan. "Jendeak kamisetak-eta janztea publizitate-kanpainarik onena da, baina batez ere diru iturria da guretzat", esan digu Karmele Zubizarreta Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitza Fundazioaren komunikazio-arduradunak. Materiala salgai dago Euskadin barreiatuta dauden 80 lekutan. Horietako bat Forum sport da, zeina kanpainaren babesleetako bat baita, bai dendetan, bai online. Gainera, besteak beste, elkarteak Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban dituen egoitzetan ere erosi ahal dira.

Produktuak saltzeaz gain, boluntarioek informazioa ematen dute igerilekuetan eta hondartzetan. Guztira, 200 boluntario baino gehiago ibili ziren Euskadin, 2019an, kanpainan lan egiten. "Boluntarioek musu-truk eskaintzen dizkigute denbora eta esfortzua. Kanpainak duen baliorik onena kanpaina bera garatzen duten pertsonak dira, zalantza barik. Normalean era batean edo bestean gertutik bizi dute gaixotasuna".

Guztira, 80 udalerrik baino gehiagok hartu zuten parte kanpainan, Euskadin. Aurten, ekitaldi nagusia Ereagako hondartzan egin zuten, Getxon. Agintariak eta enpresa-, kultura- eta gizarte-ordezkariak bertan izan ziren. Era berean, hainbat ekintza antolatu ziren, bai nagusientzat, bai txikientzat. "Denerik egiten da, herri bakoitzeko boluntarioek nahi dutenaren arabera. Boluntarioek normalean informazioa zabaltzen dute eta igeri egiteko gonbidapena egiten diote jendeari. Horren truke, ohorezko diplomak banatzen dituzte. Baina beste herri batzuetan, esate baterako, umeentzako jolasak antolatzen dituzte, txistulariek erakustaldia egiten dute...". Txorierrin, Derioko eta Zamudioko igerilekuek egin zuten bat kanpainarekin eta bustitzeko gonbidapena luzatu zieten herritarrei. Estatuan ere hainbat ekintza egin ziren.

"Udako ekitaldi solidarioa"

Zubizarretaren esanetan, *Busti zaitez* eguna "udako ekitaldi solidarioa da". "Erakunde publikoek ikaragarrizko babesa

Kanpainak gaixotasuna gizartean ikusgai egin nahi du, sentsibilizazioa eta dirua batzea ditu helburu

"Kanpainak duen baliorik onena kanpaina bera garatzen duten pertsonak dira, zalantza barik"

Eugenia Epalza Fundazioa

Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitza Fundazioa duela 35 urte sortu zen Euskadin, gaixotasuna duten lagunen bizi kalitatea hobetzeko. Fundazioak egoitzak ditu Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, eta helburu hauek ditu: esklerosiak sortzen dituen arazoei buruz gizarteari informatzea eta sentsibilizatzea; Euskadiko egoitzek eskaintzen dituzten errehabilitazio-zerbitzuak finantzatzeko fondoak lortzea; eta osasun-profesionalekin harremanak eta ikerketak bultzatzea.

Fundazioak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie gaixoei eta euren senideei: psikologia, fisioterapia, logopedia, terapia okupazionala, laguntza teknikoak, gizarte asistentzia, arteterapia, aisialdiko ekintzak, jolasak... Fundazioa garrantzitsua da Estatuan, aitzindaria delako. Izan ere, errehabilitazio-zerbitzuak eskaini zituen lehenengo elkarteetako bat izan zen. Gainera, sentsibilizazio-kanpaina berritzaileak antolatzen ditu. Gaur egun, 2.600 lagunek osatzen dute elkartea, eta, horri esker, duen bigarren handiena da Estatuan. Era berean, ISO 9001:2000 ziurtagiria lortu zuen esklerosi anizkoitzaren lehenengo elkartea izan zen. Horrek hainbat esparrutan –gizarte-sentsibilizazioa, komunikazioa, gizarte- eta zientzia-ekitaldiak antolatzea...– egindako lanaren kalitatea hartzen du aintzat

Bizkaiko Esklerosi Anizkoitza Elkartea (ADEMBI)
Ibarrekolanda 17, atzealdea
48015 (Bilbo)
www.adembi.org

ematen digute urtero: Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak… Gainera, elkarteek zein herritarrek, gizarteak oro har, bat egiten dute kanpainarekin. Politikariek ekintzetan hartzen dute parte, lagun ospetsu batzuek kanpainari oihartzun handiagoa ematen laguntzen digute... Data garrantzitsua da eta normalean hainbat eta hainbat lagunek jakin badakite uztailaren bigarren domekan *Busti zaitez* kanpaina egiten dela. Guretzat oso garrantzitsua da, kanpainari esker ahal den eta zarata handien egin nahi baitugu. Horrela, gizarteak esklerosi anizkoitza zer den jakingo du".

Kanpainaren eguna beti da finkoa: Estatuko elkarteak uztailaren bigarren domekan egiten dela erabaki zuen aspalditik. Horrek alde ona du, guztiok noiz izango den aurretik dakigulako; hala ere, alde txarra ere badu, batez ere eguraldi aldakorra dugun aldeetan. "Beste leku batzuetan, Valentzian edo Andaluzian, berdin zaie, baina hemen Euskadin, eguraldiak dio kanpaina arrakastatsua den edo ez. Horren haritik, arrautzak eskaintzen dizkiogu Santa Klarari, euririk ez egiteko. Dena dela, eguraldi ona edo txarra egin, euskaldunok berdin-berdin bustitzen gara esklerosi anizkoitzaren alde, kalean zein etxean (kar, kar)".

Gaixotasuna

Esklerosi anizkoitza gaixotasun neurologikoa da. Sintoma arruntenak hauek dira: gorabehera sentsitiboak, orekan eta hizkeran; dardarak; ahultasuna gorputz adarretan, eta kasu larrietan, paralisia; espastizitatea; alterazio urologikoak; bertigoa; nekea; inurridurak eta ikusmen alterazioak. Batez ere 18 urtetik eta 35 urtera bitartean diagnostikatzen da, eta eragin handiagoa du emakumezkoengan: hiru pazientetako bi emakumezkoak dira. Elkartekoek beti azpimarratzen duten moduan, "esklerosia ez da hilkorra, ezta kutsakorra, ezta hereditarioa ere". Hala ere, kronikoa da eta bost ordurik behin kasu berri bat diagnostikatzen da Estatuan. Guztira, gaixotasuna duten 2.600 lagun daude Euskal Herrian; eta 56.000 Estatu osoan.

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Lagatzuko zirku euskalduna

Ekainaren azken zapatuan, Lagatzu euskara elkarteak Lagatzu Eguna ospatu zuen 10. aldiz. Data berezia izan zen, elkarteak aurten 20 urte bete dituelako. Jaialdiaren protagonista zirkua izan zen.

Artistak kalejiran irten ziren herritik goizean eta horren ondoren eskola zaharretan batu ziren ikuskizuna aurkezteko: pailazoak, erraldoiak, dantzariak, akrobatak, musika… Zamudioztar guztiek – herritarrek, udalak eta herriko elkarteek– bat egin zuten euskararen jai nagusiarekin. Izan ere, zirkuan zamudioztarrek eurek hartu zuten parte: ikuskizuna prestatzeko, tailerrak egin ziren aurreko hileetan. "Herritarren erantzuna oso ona izan da eta tailer guztiak gainezka egon dira. Gainera, herrian beti dago talenturen bat eta gauza bereziak egiten dituzten zamudioztarrak ere topatu ditugu", esan zuen Iñaki Atxutegi kideak. Ikuskizuna bukatutakoan, euskaltzaleak herri bazkarian bildu ziren. Hori hasi baino lehen, Lagatzukoek omenaldia egin zioten Ales Atxutegiri, urteetan euskararen alde egindako lanagatik. "Elkarteak egundoko lana egin du azken urteotan, baina orain gazteek hartu behar dute lekukoa. Herria batuta badago, edozein gauza egiteko gai da", esan zuen omenduak.

Betiko moduan, Taberna Ibiltariak kantatzen eta dantzatzen jarri zituen jankideak bazkalondoan. Parrandazaleek jaiarekin jarraitu zuten, Ingu Al Deu? erromeria-taldearen eskutik.

a: Unai Legarreta eta Roberto Gomez "Txiki"

Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin
POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxea
Untzaga Ibaia Kalea, 1
48180 – DERIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
AENOR
Gestión Ambiental
HERRI ONURAKO
COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA
HETEL
ikastolenelkartea
BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazioko Teknikari
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazioa eta Robotika industrialako Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
• Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Esku-hartze Psikosozialerako Zerbitzuak 50 espedienteri erantzun zien 2018an

Zerbitzua 18 urtetik beherakoentzat eta, behar izanez gero, beraien familientzat izan da 2017ra arte, baina iaz adin guztietara zabaldu zen. Artatutako kasuen % 52 helduei dagokie; eta % 41, banandutako familiei.

Zerbitzua zabalik dago astelehenetan, 11:00etatik 18:00etara, eta ostiraletan, 08:00etatik 15:00etara, Mankomunitatean

Txorierriko Mankomunitatearen Esku-hartze Psikosozialerako Zerbitzua 2005etik dago martxan. Hasiera batean, bakarrik haurrei zuzenduta zegoen, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek egindako eskaerei erantzuteko: gizarte-, hezkuntza- eta osasun-sareko arreta-baliabideak areagotzea. Hala ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzu berriak onestearen harira, Txorierriko Mankomunitateak Zerbitzua adin-tarte guztietara zabaltzea erabaki zuen 2018. urtearen hasieran. Beraz, iaz lehen aldiz eman zaie arreta biztanle guztiei, eta, horretarako, zerbitzuaren iraupena bikoiztu egin da. Artatu diren kasuen % 52 helduei dagokie; eta % 41, banandutako familiei. Zerbitzua martxan dago astelehenetan, 11:00etatik 18:00etara, eta ostiraletan, 08:00etatik 15:00etara, Txorierriko Mankomunitatearen lokaletan.

Udalerri bakoitzeko gizarte-langileek bideratzen dituzte erabiltzaileak zerbitzura, eta bertan jasotzen dituzten laguntza psikosozialeko prestazio erlazionalak banakakoak, familiakoak edota taldekoak izaten dira. Horrez gain, Zerbitzuak prebentzioa ere lantzen du, eta, horretarako, arazo pertsonalak, jokabideari lotuak edota familiakoak goiz detektatzeko eta tratatzeko lan egiten du; izan ere, denborarekin, arazo horiek konplikatu egin daitezke eta asaldura psikopatologiko kronikoak eta gizarte-bazterkeria eragin ditzakete. Hori ekiditeko, jokabidearen psikologiaren ikuspegitik egiten da lan, laguntza behar dutenek gaitasun pertsonal jakin batzuk eskuratu eta garatu ditzaten, baita familiako eta taldeko gaitasunak ere. Era berean, ohitura edo jokabide desegokiak aldatzeko ere lan egiten da zerbitzuan.

2018an aztertutako arazo nagusiak hauek izan dira: aldarte deprimitua (% 27), jokabide-arazoak (% 15), banantze gatazkatsuak (% 10), antsietate- eta depresio-nahasmenduak (% 6) eta familiako edota gurasoekiko harreman gatazkatsuak.

Youtuber arrakastatsua izateko gakoak

Ekainaren 24tik 27ra bitartean, Teknogune campus teknologikoa egin zen bigarren aldiz, eta Txorierriko dozena bat ikaslek *youtuber* eta *videostreamer* arrakastatsuak izateko gakoak ezagutzeko aukera izan zuten bertan. Ekimena EGAZ Txorierrik kudeatzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak finantzatzen dute. Campusa 16 urtetik 18 urtera bitarteko ikasleei zuzenduta dago, eta han jarduera zientifiko eta teknologikoak egin ditzakete oporraldietan eta eskolaz kanpoko ordutegietan. Abenduaren 26an eta 27an beste tailer bat egingo da, robotikari buruzkoa (Dobot eta Python).

Teknogune Txorierri ekimenaren helburua da kultura eta bokazio zientifikoa sustatzea gazteen artean, eta, horren harira, arreta berezia jartzen du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean.

Txioa Aretoa

Uda eta musika elkarlotuta daude. Jaiak, kontzertuak, festibalak… Garai aparta da musika taldeentzat. Txorierriko Mankomunitateak kudeatzen duen entsegu-lokalean, Txioa Aretoan alegia, dauden taldeak ere gure herrietako jaietan ikusteko aukera egongo da.

Entsegu-lokalak 10 urte baino gehiago daramatza eskuragarri Txorierriko musika taldeentzat. Abenduan aretoa erabiltzeko izena emateko epea zabaldu egiten da, eta urtarriletik abendura arteko egutegia ere zehazten da. Gaur egun, bederatzi taldek erabiltzen dute Derioko Larrabarri baserrian dagoen entsegu-lokala: bakarlariak, elektrotxaranga bat, bertsioak egiten dituzten taldeak eta abesti propioak egiten dituztenak, haien artean.

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

2.000 mendietako

Zenbat aldiz egiten dugu astean benetan gustatzen zaiguna? Pedro Diez eta Sabin Aresti txorierritarrak mendizale amorratuak dira eta astero joaten dira mendira lagunekin. Urte asko daramate hori egiten: beraz, 2.000 mendi baino gehiago bisitatu dituzte eta, konturatu barik, klub aparta osatu dute. Eurekin batu gara eta duten zaletasunari buruz hitz egin digute.

t: Gaizka Eguzkitza

Pedro Diez (83 urte) eta Sabin Aresti (75 urte) lagunak dira eta biak bizi dira Txorierrin: Pedro, Sondikan; eta Sabin, Loiun. Biak dira mendizaleak eta urteak eta urteak daramatzate mendira elkarrekin joaten. Apurka-apurka, beste lagun batzuek bat egin dute haiekin eta talde polita osatu dute: lehenik eta behin, Eduardo Gonzalez (69 urte) eta gero Jose Ramon Martinez (67 urte), Javi Garcia (71 urte) eta Eulogio Gangoiti (68 urte). Horiek guztiak ez dira txorierritarrak, baina zapaturo elkartzen dira Sondikan, txangoak egiteko. Guztira, 12 urte daramatzate elkarrekin.

"Ezin naiz bizi mendira joan barik", esan digu Sabinek. "Leku eta lagun zoragarriak ezagutu ditugu. Behin, Urdaibain geundela, Arteagako errota erakutsi ziguten. Pribatua da, baina hori ezagutzeko jakinmina genuen eta jabeak erakutsi zigun". Taldekideak mendizale amorratuak dira eta, noski, astero-astero egiten dituzte ibilaldiak; eguraldia ona zein txarra, horrek ez du garrantzirik. "Negua Euskal Herrian ez

Buruzagi zuhur eta metodikoa

Sabin Aresti Erandiogoikoan jaio zen, baina Loiun bizi da azken 50 urteotan. Bera da taldeko burua: berak prestatzen ditu ibilbideak eta besteek jarraitzen diote. "Autoan elkartu arte ez dakigu nora goazen", esan digu Jose Ramonek. "Ni betidanik izan naiz mendizalea, eta ezkondu nintzenean, kirola egin nahi nuen eta mendira joatea erabaki nuen. Eta horrela hasi nintzen. Hasiera batean, talde batekin, gero beste batekin… Eta azkenean horiekin", azaldu digu Sabinek.

Sabin zuhurra da. "Gaztetan, 21 urte nituela, Arrazolara, Anbotora joan nintzen eta gorriak ikusi nituen handik jaisteko. Harrezkero, ezin izan naiz bide arriskutsuetatik –bide estuak eta amildegi handikoak– ibili: Anetoko Mahoma pasabidea –handik hainbat mendizale erori dira–, Anbotoko infernuko zubia, Aralarreko Balerdi edo Arabako Karria Haitza –kateak erabili behar dira tontorrera heltzeko–, adibidez. Beldur izan naiz eta ez naiz hortik pasatzera inoiz ausartu. Ez du merezi", esan digu.

kluba

Gainera, lagunek esan duten moduan, oso metodikoa da. "Etapa bat bukatzen dugunean, hurrengoa leku berean hasi behar da. Behin, Pirinioetan, mutil batek eskaini zigun autoz Eugi herrira eramatea, baina Sabinek ezetz esan zion, gure plana Urkiaga mendateko tontorrera heltzea zelako. Mutilak Urkiagan itxaron behar izan zigun. Beste behin, Deustuko erriberan, izugarrizko beroa egiten zuen eta pentsatu genuen espaloiaz aldatzea, itsasadarraren parean agian haizeak freskatuko gintuelako. Baina Sabinek esan zuen ezetz, beste aldeko espaloitik beste egun batean ibili beharko genuela argudiatuta".

Normalean Bizkaitik ibiltzen dira. Lau-bost orduko martxak egiten dituzte eta etxean bazkaltzen dute

"18-20 etapako ibilbidea egin genuen, Bizkaiko mutur guztietatik Bilbora joateko: Ermua, Santurtzi, Lekeitio..."

da izaten hain gogorra. Eta eguraldi txarra dagoenean, aterperen bat duen ibilbidea egiten dugu, ogitartekoa patxadaz jateko". Bakarrik behin egin zuten salbuespena eta ez ziren mendira atera. "Orain dela urte batzuk, ziklogenesi leherkorra iragarri zuten eta emazteek ez ziguten ateratzen utzi (kar, kar)".

Normalean Bizkaitik ibiltzen dira, etxetik hur. Lau-bost orduko martxak egiten dituzte eta jarraian etxera itzultzen dira familiarekin bazkaltzera. Helburua ez da mendi tontorrera iristea, baizik eta ibiltzea, lagunekin egotea, kirola egitea eta naturan murgiltzea. Athletic eta politika dira mintzagaiak, batez ere aldapan behera. “Aldapan gora ni mutu ibiltzen naiz, ez dut hitz egiteko indarrik (kar, kar)”, dio Eulogiok.

Kuadrilla erabat maiteminduta dago Bizkaiarekin, eta euren hitzetan, "leku zoragarriak ditugu etxetik hur": Serantes, Gorbea, Itxina, Besaide, Karrantza... "Tamalez, bizkaitar askok ez dute Bizkaia behar bezala ezagutzen. Penagarria da". Eurek, ostera, ederto ezagutzen dute lurraldea, baina oraindik badaude leku ezezagunak. "Esate baterako, auzoak. Orain asteburu batzuk Artiban egon ginen, Alonsotegiko auzo bat, ezagutzen ez genuena. Pagasarriren eta Alonsotegiren artean dago".

Erronkak

Taldeari ez zaio gauza bera astero egitea gustatzen eta, horregatik, erronkak egiten dituzte. Lehenengoa Bizkaiko mendi guztietara –guztira 120– igotzea izan zen. Geroago, gauza bera egin zuten Araba eta Gipuzkoako mendiekin, baita Nafarroakoekin ere. Gainera, Transpirenaica mendiko ibilaldia ere egin dute. Horrek Kantauri eta Mediterraneo itsasoak lotzen ditu Pirinioen bidez, Hondarribitik Cadaques herrira bitartean. Guztira, 810 kilometro eta 78.000 metroko desnibela dituen ibilbidea da.

Eta mendiak amaitu zitzaizkienean, herriei ekin zieten, hau da, Bizkaiko 112 udalerrietatik ibili dira; guztira, 939 kilometroko abentura, etapatan banatuta. "Eta herrien artean mendietatik pasatu ginen, jakina!", berretsi digu Jose Ramonek. Azken proiektua ere Bizkaian eraman zuten aurrera: "18-20 etapako ibilbidea egin genuen, Bizkaiko mutur guztietatik Bilbora joateko: Armintza, Santurtzi, Lekeitio, Ermua, Elorrio, Otxandio, Karrantza... Etapa batzuk oso luzeak dira eta egun batzuetan egin genituen. Gaur egun, guk egindako ibilbide batzuk edozeinek egiten ditu; hala ere, beste batzuk ez ditu inork egin", dio Sabinek, harrotasunez.

Sabinek beste erronka bat ere egin nahi du, baina momentuz ezin izan du: ermiten ibilbidea. "Oso zaila da ermitak topatzea eta ganorazko ibilbidea prestatzea, batez ere teknologia berriekin trebea ez naizelako". Ildo honi jarraituz, GPS eta horrelakoak erabiltzea ere ez zaio gustatzen. "Kanpoan agian bai, baina Bizkaian ez naiz galduko; eta bideren batean galtzen bagara, azkenean, era batean edo bestean, bide zuzena aurkituko dugu”.

"Gure garaian, behar zana eta apur bat gehiago emon behar izan genduan"

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

LURDES PRUDENCIO VIDAL | andereño erretirauta

Herriko eskolan andereño 32 urte ibili ostean, lezamarrak erretiroa hartu dau aurtengo ikasturtearen amaieran. Emozinoz betetako egunak izan dira ekainaren azkenak, mobimentu handikoak be bai, baina andereñoak tartetxoa atera dau gugaz eretxiak eta esperientziak partekatzeko.

Urte luzeetan egindako lana eskertzeko bideoa grabau, eta omenaldia egin deutsue eskolaren urte amaierako jaian. Zelan bizi izan dozu hori?

Emozino pilo bat izan zan. Zerbait espero neban eta urduri nengoan, ez jatalako gustetan protagonista izatea. Baina ondo sentidu nintzan gero, maitasunez egindakoa zala ikusi neban eta. Berba zoragarriak be bota ziran; hunkitu nintzan.

Oso inportantea izan zara lezamar askorentzat…

Bueno, bueno, ez dakit oso inportantea izan nazen; halanda be, egia da garrantzitsua dala ume txikiak noren esku itxiten diran. Guraso batzuk lagunak dira, beste batzuk kalean edo dendan ikusten dodaz…

Lezama moduko herri txiki baten lantokia eta bizilekua izateak desabantailarik ekar daike?

Nik ez dot inoz arazorik izan. Ez dakit; ume txikiakaz lan egiteak zerikusia euki ahal izan dau horretan, beharbada. Ondo moldatu naz.

Eta zeintzuk dira herri txiki baten lan egiteko abantailak?

Eskola familiarra dala, eta lekua bera be bai: naturan gagoz, eta ez kale artean. Kanpoko instalazioak be ondo dagoz, barruko gelak txikiak izan arren.

Bokazinoz ailegau zinan haur-hezkuntzara?

Egia esateko, ez; baina banekian pertsonakaz lan egitea gustetan jatala, eta apurka-apurka joan nintzan bokazinoa eraikitzen. Gure garaian, euskerea gogor sartu zan irakaskuntzan eta oposizinoak gaur egungoak baino errazagoak ziran. Gainera, haur-hezkuntzan lan-aukera gehiago egozan. Edozelan be, esan daiket oso pozik izan nazala aukeratutakoagaz.

Zein da ume txikiakaz egoteko alde ona?

Emoten deutsuen eguneroko alaitasuna, izan be, hareentzat egun guztiak dira onak. Helduok, agian, gogo txarragaz etor gaitekez eskolara, baina ume txikiakaz beti dago jaia, gura zein gura ez. Osterantzean be, dana jolasetan oinarritzen danez, oso ludikoa da eta norberak txipa aldatu egiten dau; arazoak ahiztuten dira. Alde txarra, ostera, nekea izan daiteke, umeak nekaezinak diralako… Eta, jakina, beste mota batzuetako arazoak be egon daitekez, baina hori ez da hemen gertatzen: oso familia arruntak dira eta giro ona dago. Ondorioz, gustura etortzen zara eskolara.

> *"Haur hezkuntzara ez nintzan bokazinoz ailegau; apurka-apurka joan nintzan hori eraikitzen"*

> *"Ume txikiek egunero emoten deutsue alaitasuna: hareekaz beti dago jaia, gura zein gura ez"*

> *"Umeek ondo sentidu behar dabe ikasgelan, babestuta eta maitatuta"*

Zelako eskola topatu zenduan? Zelako eskola itxiko dozu?

Eskola txiki gelditzen dabil, nahiz eta Hezkuntza Sailerako hori lehentasunezko arazoa ez izan. Orain dala urte batzuk, gurasoek eskolea handitzeko proiektua egin eben, baina ezebezean geratu zan. Biztanleria handitzen doa, eta eskola handiagoa izan ezkero, askoz hobeto egongo geintekez. Dana dala, egoerea dramatikoa be ez da, eta esan behar da danetarik izan dogula: laborategia, informatika-gela, zeramika-tailerra… Bestetik, gaur egungo irakasleak gu baino askoz prestauago dagoz: eskolan hasi eta dana dabe kontrolpean. Hareek be eskolan inplikazino handia daben arren, gure garaian konpromisoa bestelakoa zan: eskolea ia-ia hasten ebilan eta emon behar zana eta apur bat gehiago emon behar izan genduan. Eskolea lana baino gehiago zan eta familia bihurtu ginan. Eta familiakaz batera jaiak antolatzen hasi ginan –esate baterako, Inauteriak– eta jai horreek herrira zabaldu ziran gero. Azkenik, aitatu beharra dago metodologia aldetik be asko aurreratu dogula. Edozelan be, beti izan gara nahiko eraginkorrak arlo horretan, eta prestakuntzea guztion ardurea izan da beti, eskolan zein eskolaz kanpo.

Andereño moduan, zeintzuk izan dira zure kezkak?

Ume txikiek ondo sentidu behar dabe ikasgelan, babestuta eta maitatuta. Irakasleok segurtasuna emon behar deutsegu. Hasieran dana da ezbardina eta, normala

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

danez, negarrez ibili ohi dira: geureganatu behar doguz. Horrezaz gainera, ume bakotxarengandik onena atera behar dogu, eta, horretarako, euren erritmoa eta izaerea errespetau. Ume guztiak egin behar doguz ikusgai.

Familia eta lana buztartzea ez da erraza eta gero eta goizago bidaltzen doguz seme-alabak eskolara. Beharrezkoa da bi urteko umea eskolara joatea?

Ez. Ume txiki batek lehenengo eta behin heldu bategaz egon behar dau, eta gero bere erritmoa errespetau daitela: loa, jana, berba asko egin dakiola… Umeak hiru urtegaz-edo hasten dira esparru soziala lantzen: aurretik alkarregaz egon daitekez, baina ez dabe alkarrenganako interesik.

Zerbait ikasiko dabe eskolan…

Bai, jakina, baina geroago be izango dabe ikasteko aukerea. Nire ustez, ume gehienak larregi estimulatuta dagoz gaur egun: pailazoak edo pelikula bat ikustera joan, antzerkira, eskolaz kanpoko ekintzak… Askotan ekintzen bonbardaketea izaten da eta ez dakie hori guztia behar moduan kudeatzen. Ondorioz, kontzentrazino-arazoak sortzen dira. Horretarako adin nahikoa dutenean, eskolaz kanpoko ekintzak egitea polita da, umearen gustua definitzen dalako eta hori inportantea da bihar-etziko ikasketei eta lanari begira. Baina probateko aukerea emon behar jako umeari, eta ekintza bategaz edo bigaz nahikoa da.

"Umeek patxadaz egoteko denporea behar dabe eskolan zein etxean"

Zer landu behar da ume txikiakaz?

Patxadaz egoteko denporea behar dabe eskolan zein etxean. Ikasgelan arbela digitala erabilten dogu, joerea umeak mundu digitalera bideratzea dalako (adibidez, lehen hezkuntzako laugarren mailan ez dago libururik eta dana ordenagailuaren bidez egiten da); dana dala, haur-hezkuntzan pantailak neurriz erabili behar dira eta helburu pedagogiko bategaz. Gehienbat lehengo jolasetara jo behar dogu: berbarako, ikasturte honetan musika-tresnak egin doguz trasteak erabilita, eta umeek horreek manejau dabez eta musikea jo dabe. Era berean, alkarre-

Konpromisoa

Lurdes Prudencio Vidalek 60 urte dauz eta irakaskuntzan 39 urte daroaz: urte batez Gallartan izan zan; hurrengo sei urteetan, Etxebarriko San Antonio eskolan; eta azken 32 urteetan, Lezaman. Prudencio Bilbotik etorri zan Lezamara bizi izatera, eta handik gitxira plazea eskuratu eban herriko eskolan. Haur-hezkuntzako irakaslea ez eze, zuzendaria eta ikasketa-burua be izan da bertan. "Eskolea zuzentzea guztiz ezbardina da: andereño zarenean zure umeen taldean ipintzen dozu arretea eta lasaiago bizi zara; zuzendaria zarenean, ostera, fronte gehiago dozuz zabalik. Dana dala, gustura ibili nintzan: azken baten helburua eskolearen alde lan egitea da eta erronkea polita da. Gurea eskola txikia da eta akabuan guztion artean administrau behar dogu bai ala bai. Alde polita be badau, oso demokratikoa izan daiteke eta".

Lezamarrak konpromiso handia dau euskereagaz eta Zorrizketan euskera alkartearen sortzaileetariko bat izan zan. "Euskerea ikasi egin neban eta argi euki neban euskaraz bizi gura nebala: Lezamako eskolak aukera hori emon deust. Gehiago oraindik, hona etorri nintzanean argi izan neban neuk be herriko euskeraz egin gura nebala". Bere esanetan, Fernando Olabarrietak ilusinoa kutsatu eutsan eta buru-belarri murgildu zan Zorrizketanen sorreran orain dala 16 urte. "Urte honeetan euskera alkarteak lan polita eta inportantea egin dau euskerearen alde, beti

gaz eta bakarrik jolasten, alkarregaz konpontzen… ikasi behar dabe umeek

Etxean hezten da; eskolan, irakatsi.

Ez, biak batera doaz, eskolan nahiz etxean. Edozelan be, egia da gurasoak ezinbestekoak dirala, erroa, emozinomundua etxean dagoalako. Etenbako komunikazinoa egon behar da eskola eta gurasoen artean, eta uste dot Lezaman hori nahiko ondo betetzen dala. Bestetik, gustauko litxakit aitatzea eskola-proiektuan estamentu guztiak inplikatzea ezinbestekoa dala, bakotxa jagokon neurrian: administrazinoa, udala, gurasoak eta irakasleak. Herriko inportanteena ez bada, eskolak herriko egitasmorik garrantzitsuenetariko bat izan behar du; eta baliabideak emoteaz gainera, interesa izan behar da bertan gertatzen dan guztian.

Aspaldi honetan berba asko egiten da hezkuntza inklusiboaren gainean; hau da, eskolak ume bakotxaren beharrizanetara moldatu behar dauala. Baliabiderik badago horri heltzeko?

"Argi neban euskaraz bizi gura nebala: Lezamako eskolak aukera hori emon deust"

be apaltasunez". Alkarteak ahalegin handia egin dau euskerea eta euskal kultura herrian bultzatu guran, eta, horretarako, ekintza ugari antolau dabez; Mikel Zarateri omenaldia be, euren artean. "Gurea herria euskalduna da: euskerea badogu, baina ez dogu erabilten. Ez doguz beste herri erdaldunago batzuetan izan daikiezan beharrizan berberak, eta horregaitik da gatxagoa asmatzea. Gazteak behar doguz, idea barriak ekarri dagiezan; halanda be, dedikazinoa eskatzen dau horrek eta mundu guztia ez dago denpora librea eskaintzeko prest".

Prudencioren ustez, euskal eskola publikoak euskaldun osoak hezten dauz; gitxienez, bere esperientziaren arabera. "Eskolatik euskeraz bizitzeko beste jakinduriagaz eta prestakuntzeagaz urteten dira, baina gero, kalean, euskera gutxi entzuten da. Gurasoek bizpahiru berba egiten dabe euskeraz eta ondoren gaztelaniaz egiteko joerea dabe; beraz, umeek gaztelania entzuten dabe eta nagusitzen diran hainean hareek be jotzen dabe erdarara. Dana dala, ez dogu ezkorrak izan behar. Horri lotuta, ikasturte hasierako bileran gurasoei azaltzen deutsegu gurea D ereduko ikastetxea dala, baina eskolatik kanpo be euskeraz ibiltzea plusa dala. Era berean, ahalegin handia egiten da ikasgelan be bakarrik euskerea entzun daiten".

"Herriko inportanteena ez bada, eskolak herriko egitasmorik garrantzitsuenetariko bat izan behar du"

Paperean oso polito dago, baina errealidadean hori bermatzea kostatu egiten da. Umea eskolatu orduko, egundoko txostena egiten da eta arazoei aurreikusteko baliagarriak diran adierazleak ipintzen dira. Halanda be, baliabideak gero –psikologoa, adibidez– ez dira haurhezkuntzara bideratzen, lehen hezkuntzara baizik. Eta kulturara heltzeko, emozinoek finkatuta egon behar dabe. Beraz, ahal dana egiten dogu, nahiz eta hori beti idealena ez izan.

Zeintzuk dira euskal eskolearen indarguneak eta ahulguneak?

Neure eretxiz, guztia da aldekoa: gizartea askotarikoa dan heinean, eskolea be askotarikoa da eta alkarrengandik ikasten dogu. Era berean, ikasgelan itunpeko eskoletan baino ikasle gutxiago egoteak banan-banako arreta eskaintzeko aukerea emoten deusku. Beste alde batetik, jakina, baliabide gehiago behar doguz eta beti gabilz hori aldarrikatzen: beti administrazinotik tiraka, protestaka.

Zein da andereño baten poztasunik handiena?

Arazoren bat dauan edo izan daiken umeak bere lekua topatzen duanean; edo bere lekua topatzera bideratzen dozunean, besterik ez. Beharbada, nagusitan be mugaren bat izango dau, baina munduan bere lekua hartu dauala ikustea oso pozgarria da.

Etapa barria hasiko dozu. Planik?

Ez dot planik egin gura: ea nora joko dodan. Alde batetik, pena emoten deust, baina erretiroa hartzeko aukerea eskaini deuste eta hori aprobetxau gura dot, beste gauza batzuk egin ahal izateko. Gainera, nigaz hasi ziran guztiak erretiratuta dagoz eta uste dot neure txanda be badala. Eta zerbaiten faltea sentiduko ete dodan? Bada, norberaren balioa, beharbada, izan be mundu honetara zerbait egitera etorri gara –zein polita dan hori!–, eta hemendik aurrera energia non ipini.

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Gozategi, nobedadeetariko bat

Intxurreta jai-batzordeak dana prest dau, larrabetzuarrek andramariak gozau dagiezan. Abuztuaren 12tik 16ra bitartean, gustu guztientzako ekintzak egongo dira, eta, gainera, abuztuaren 24an eta abuztuaren 30etik irailaren 1era San Bartolome jaiek eta sanemeteriek lekukoa hartuko dabe hurrenez hurren.

a: Idoia Andres

"Guretzat, jai herrikoiak eta parte-hartzaileak antolatzea da garrantzitsuena eta horretan ahalegintzen gara urterik urte", esan deuskue jai-batzordeko kideek. Horrela, bada, eta Intxurretakoen esanetan, Larrabetzuko jaiek badute nolabaiteko molde bat. "Molde horretatik asko ez urteten saiatzen gara, baina urtero nobedaderen bat sartzen dogu. Aurtengo nobedaderik esanguratsuetako bat Gozategi taldearen kontzertua izango da abuztuaren 15ean". Horrezaz gainera, ez da sokamuturrik egongo. "Horren ordez, elektrotxarangea antolatu dogu hilaren 16rako. Elektrotxarangek sekulako giroa sortzen dabe kaleetan eta Larrabetzun oso harrera ona izan ohi dabe".

Txupinazoa abuztuaren 14an, arratsaldeko 8etan botako dabe, baina aurreko egunetan be ekitaldiak izango dira, esate baterako futbol 7 txapelketea eta herri afaria. Azken hori jente gehien batzen dauan ekintzetariko bat da. "Txupinazoan be gero eta lagun gehiago batzen dira; garrantzia hartu dau aspaldi honetan".

Hilaren 15ean, kalejiraren ostean, dantzen alardea egongo da Bizkargi taldeko eta Atharratzeko dantzarien eskutik. Txaranga batek herria girotuko dau, eta arratsaldean umeentzako jolasak izango dira. Era berean, karrozak aterako dabez kalera. "Ekitaldi honetan be gero eta jente gehiagok hartzen dau parte eta karrozen maila be gero eta hobea da".

Abuztuaren 16a umeen eguna izango da. Besteak beste, puzgarriak eta pintxo lehiaketea egongo dira. Lekittoko deabruak taldeak ikuskizuna eskainiko dau, eta, horren ostean, dantza lehiaketea egingo da. "Dantza lehiaketan lagun askok emoten dabe izena eta egundoko giroa izaten da. Zein da ekitaldi honen arraskataren zergatia? Bada, Larrabetzu herri bizia dala. Larrabetzuarrek oso ondo erantzuten deutsee jaietan egiten diran ekintzei: asko gustatzen jakez eta gu pozik gagoz euren erantzunagaz. Oso parte-hartze handia dago". Tximeleta erromeria taldeak amaierea emongo deutse andramariei.

Emeteriak

Halanda be, jaiak jarraituko dau Larrabetzun. Izan be, abuztuaren 24an San Bartolome ospatuko dabe; eta abuztuaren 31tik irailaren 1era arte, emeteriak. "Orain dala pare bat urte, emeteriak berbizteko ardurea hartu genduan eta ikusi dogu jaiek hoberantz egin dabela, ekintzetan jente gehiagok hartzen daualako parte. Aurten be horretan gabilz, uste dogulako auzoetako jaiei garrantzia emon behar deutsegula. Egia esan, datak ez dira oso onak, baina saiatzen gara jenteari gustetan jakozan ekintzak antolatzen". Beraz, emeterietan be zer egin eta zertaz gozatzeko egongo da. Beste ekintza batzuen artean, marmitako txapelketea eta umeentzako zein helduentzako erromeria egongo dira jaietako lehen egunean, barikuan; eta zapaturako bertsosaioa, dantza erakustaldia eta erromeria antolatu dira. Emeteriei agur esateko, jolasak, herri kirolen erronkea eta kalejirea izango dira.

Herri afaria eta karrozen desfilea jente gehien batzen daben ekintzeetariko batzuk dira

Jai-batzordeak emeteriak berbizteko ardurea hartu eban orain dala pare bat urte

Jai-egitaraua

ANDRAMARIAK

Abuztuak 12, astelehena

–17:30 Futbol 7 txapelketea: kanporaketak.

Abuztuak 13, martitzena

–17:00 Futbol 7 txapelketea: finalaurrekoak eta finalak.

–20:00 Herri afaria.

Ostean, futbol 7 txapelketearen sariak banatzea.

–22:30 Larrabetzuko Talentu Lehiaketea.

Abuztuak 14, eguaztena

–18:00 Herriko pelotarien arteko erronkea.

–20:00 Txupinazoa, jai-batzordearen eskutik. Herriko trikitilari, txistulari, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akerbaltzegaz.

–22:00 Xaibor.

–00:00 Erromeria.

Abuztuak 15, eguena

–11:30 Kalejirea, txistulari, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akerbaltzegaz.

–12:30 Dantzen alardea: Bizkargi dantza elkartea eta Atharratzeko dantzariak (Zuberoa).

–13:30 Joselontxo´s txarangea.

–17:00 Umeen jolasak (puzgarria, aurpegia margoztea, bike jumping-a eta ezetz palanganea hutsitu!). Anguleri kultur etxearen atzeko aldean.

–17:00 Joselontxo´s txarangea.

–19:00 Karrozak.

–22:00 Kontzertua: Gozategi.

Abuztuak 16, barikua. Pijama eguna

–11:00 Kalejirea, txistulari, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akerbaltzegaz.

–11:00 Puzgarriak, igerilekuetan.

–13:00 Umeen pintxo lehiaketea.

–14:00 Umeen bazkaria.

–14:30 Sukalki txapelketea.

–18:30 Elektrotxufla elektrotxarangea.

–22:00 Lekittoko deabruak.

–23:00 Dantza lehiaketea.

–00:00 Erromeria: Tximeleta.

Abuztuak 24, zapatua. San Bartolome

–13:00 Urkaritxo txapelketea (0-16 urte).

–14:30 Paella txapelketea.

–17:00 Briska txapelketea.

–18:00 Urkaritxo txapelketea (16 urtetik gorakoentzat).

(Denpora txarra eginez gero, egitaraua bertan behera geldituko da).

EMETERIAK

Abuztuak 30, barikua

–12:00 Kalejirea, txistulari, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akerbaltzegaz.

–14:30 Marmitako txapelketea.

–17:00 Mus txapelketea.

–17:30 Umeentzako erromeria: Gauargi.

–22:00 Erromeria: Drindots.

Abuztuak 31, zapatua

–11:30 Apar-jaia.

–12:30 Bertsolariak: Anjel Mari Peñagarikano eta Onintza Enbeita.

–17:00 Briska txapelketea.

–18:00 Zumba.

–19:00 Dantza erakustaldia: Akelarre dantza taldea (Hendaia).

–22:00 Erromeria: Altxa Porru.

Onintza Enbeita.
a: Lehior Elorriaga / Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Irailak 1, domeka

–12:00 Kulki.

–18:30 Herri kirolen erronkea.

20:00 Kalejirea, Zintarritik taldeagaz.

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Herritarra, protagonistea

Intxurreta jai-batzordeak 15 urte bete dauz aurten. Hamabost urte, larrabetzuar guztientzako andramariak antolatzen. Ekitaldi herrikoiak eta parte-hartzaileak dira nagusi. Izan be, Intxurretakoek argi dabe jaietako protagonistak herritarrek izan behar dabela.

a: Idoia Andres

"Urte honeek ederrak izan dira: jai-batzordearen aurreko kideek sekulako lana egin eben eta gu be horretan gabilz", esan deuskue. Intxurreta jai-batzordea sei kidek osatzen dabe gaur egun: Maripi, Leire, Jone, Nerea, Ainara eta Paul. Hainbat adinetako lagunak dira, "baina oso harreman ona dago gure artean. Oso ondo konpontzen gara alkarregaz eta esan beharra dago lan egiteko talde ona osatzen dogula".

Jai-batzorde bateko partaidea izateak konpromiso handia dakar, eta esfortzua. "Konpromisoa, urteko jairik garrantzitsuenak diralako eta hareek antolatzeko ardurea geuk dogulako. Dana dala, esfortzuari eta konpromisoari esker, jai politak antolatzen doguz guztion artean". Eta neurri baten, sakrifizio apur bat be eskatzen dau, besteek disfrutatzen daben bitartean, lan egin behar dalako. "Herriak gozatzeko, guk lan egin behar genduala bagenkian lehen momentutik. Halanda be, oso pozik gagoz eta, egia esan, geuk be asko gozatzen dogu jaietan: herritarrak oso eskertuta dagoz antolatzen doguzan jaiakaz eta hori oso agerikoa da; berbarako, txupinazo egunean gero eta jente gehiago batzen da herriko plazan urterik urte. Hori oso pozgarria da guretzat".

Azaldu daben moduan, urtero jai-egitarau erakargarria diseinatzea ez da zaila izaten. "Herritarren iradokizunak jaso eta kontuan hartzen doguz ekitaldiak antolatzeko orduan. Bestalde, jaietara zuzendutako diru-partideagaz be oso ondo moldatzen gara. Gainera, udalak egiten dauan lana eskertzekoa da, gauzak erraztu egiten deuskuz eta. Gure arteko harremana oso ona da".

Indartsu

Intxurreta jai-batzordeko kideek bertan indarra eta gogoa izan arte egoteko asmoa dabe. "Jai-batzordea oso indartsu dago eta hemen urte askoan izango gara". Taldearen indarguneei jagokenez, kideek adierazo dabe herritarrek asko estimatzen dabela jai-batzordaren lana eta horrek

"Urte honeek ederrak izan dira: jai-batzordearen aurreko kideek sekulako lana egin eben eta gu be horretan gabilz"

"Jaiak denon artean egiten doguz eta denon artean disfrutatzen doguz"

"Herritar guztiak konbidau gura doguz jaietan ondo pasatzera, pertsona guztiak errespetuz tratatuz"

asko pozten dituala. "Herritarrek egundoko erantzuna emoten dabe urte guztietan. Geuk be badakigu herritarrei entzuten eta euren iradokizunak hartzen doguz kontuan. Azken baten, jaiak denon artean egiten doguz eta denon artean disfrutatzen doguz". Horri lotuta, jai-batzordean parte hartzeko deia egin deutsee herritarrei. "Larrabetzuar guztiak dira ongi etorriak: gehiago izango bagina, idea gehiago izango geunkez eta ekintza ezbardin gehiago egin ahalko geunkez".

Behin baino gehiagotan aitatu daben moduan, Intxurretak jai herrikoiak eta parte-hartzaileak sortzea dau helburu, eta uste dabe helburua lortzen dabilzala. "Akabuan, protagonistak herritarrek izan behar dabe eta jaiak hareei esker ateratzen doguz aurrera. Eskerrak emon gura deutseguz bai larrabetzuarrei, euren erantzun onagaitik, bai udalari, lana errazten deuskulako. Amaitzeko, herritar guztiak konbidau gura doguz jaietan parte hartzera eta ondo pasatzera, horixe da gure helburu nagusia. Eta pertsona guztiak errespetuz tratatu behar dabezala be gogoratu gura deutsegu: ez beti da ez; jaietan be bai".

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Herriko musikarien aldeko apustua

San Antolin jaiakaz motorrak berotu ondoren, Lezamako jaiak irailaren 6an hasiko dira. Basobaltz jai-batzordeak ekintza-sorta zabala antolatu dau lezamar guztientzat: mozorroak, kontzertuak, txapelketak, diskofestea eta dantzak, beste batzuen artean. Ganera, zapatuko herri bazkaria berreskuratu dabe.

a: Gaizka Peñafiel

Txupinazoa bota baino lehen, tradizinoa bihurtu dan kuadrilen jaitsierea izango da barikuan. "Jaietan dagozan gauza politenetarikoa da, herritarrek prestatzen dabezan mozorroakaitik eta egiturakaitik. Oso giro polita sortzen da eta inoz 20 kuadrillak be hartu dabe parte jaitsieran", azaldu deuskue jai-batzordeko kideek. Aurtengo gaia pelikulei eta telesailei dago lotuta. Pregoia Kurutze dantza taldeak irakurriko dau. "Azken urteotan, pregoia irakurtzeko aukerea eskaini deutsegu herriko alkarteei, jaietan bertan zein urtean zehar Lezaman egiten daben lana eskertzeko eta ikusgai egiteko. Aurten Kurutze dantza taldeari emon deutsegu aukerea, jaietan beti hartzen dabelako parte eta laguntzea behar izan danean be, prest egon diralako".

"Kuadrillen jaitsierea gauza politenetarikoa da, herritarrek prestatzen dabezan mozorroakaitik eta egiturakaitik"

"Musika talde batzuk dagoz herrian eta herritarrek askotan proponidu deuskue Lezamako taldeen gaua egitea"

Basobaltz jai-batzordeko kideek jaiak herritik eta herriarentzat egitea dabe helburu. Horren haritik, ahalegin berezia egiten dabe adin guztietako lezamarrentzako ekintzak antolatzeko eta jai parekideak sustatzeko. Euren berbetan, aurreko urteetako eskemari jarraitzen deutsie jaiak diseinatzeko orduan, "ikusi dogulako jenteari gustetan jakola eta feedback onak jaso ditugulako". Emaitzea pozgarria izan da. "Azken urteotan jentearen parte hartzeak nabarmen egin dau gora eta horrek jaiak aberasten dauz".

Aurtengo jaietako nobedade nagusia da zapatuko herri bazkaria berreskuratu egin dala. "Pare bat urte emon doguz herri bazkaria egin barik eta beste formatu batzukaz saiatu gara, esaterako tortilla txapelketeagaz edo kopauagaz. Baina bazkaria barriro antolatzea erabagi dogu aurten; bestalde, bazkariaren aurretik zein ondoren Kittu taldea izango dogu giroa alaitzen". Zalantza barik, gaueko kontzertuak dira jente gehien erakartzen daben ekintzak. "Halanda be, lehen aitatu moduan, kuadrillen jaitsierea be erreferente bihurtu da azken urteotan. Era berean, uste dogu herri bazkaria aurtengo ekintza nagusietakoa dala, baita domeka arratsaldeko Xaibor diskofestea eta Eingo taldearen dantza-plaza ekitaldia be".

Kontzertuei jagokenez, esan beharra dago jai-batzordeak bariku gauerako herriko musikarien aldeko apustua egin dauela eta 22:00etatik aurrera talde eta abeslari honeek igoko dirala agertokira: Domezain, Hakima Flissi, Kartzarot eta

Hakima Flissi

Lezama ko Udala

LEZAMAKO JAIAK 2019

ERDU ETA ONDO PASA!



Lezamako Jaiak

BASOBALTZ jai Batzordea

MOREak

DANOK BERDINTASUN ARLOA

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Mamagigis. "Musika talde batzuk dagoz herrian eta herritarrek askotan proponidu deuskue Lezamako taldeen gaua egitea; hori antolatzen ahalegindu gara aurten. Talde asko diranez, kontzertuak ohikoa dan baino apur bat laburragoak izango dira, baina uste dogu oso gau polita izango dala lezamarrentzat". Tokiko musika taldeen kontzertuen ostean, erromeria egongo da Garilak 26 taldearen eskutik; zapatu gauean, Bad Sound, Huntza eta Oxabi taldeek eskainiko dabe kontzertua.

Erasorik ez

Herritar guztiek eukiko dabe Andra Mari jaietan zer ikusi eta zertaz gozatu: pelota partiduak, puzgarriak eta tailerrak, dantzak, diskofestea, sukalki eta tortilla txapelketak eta kale antzerkia, beste batzuen artean. Ganera, bariku eta zapatu gauean odolosteak eskainiko dira tabernetan eta jatetxetan. Azkenik, aitatu behar da Basobaltz jai-batzordeak urteak daroazala Txorierriko Mankomunitateko bardintasun teknikariagaz, Lezamako Moreak alkarteagaz eta udalagaz erasorik bako jaiak izateko. "Tamalez, emakumezkoen aurkako erasoek gora egin dabe azken urteotan, eta uste dogu prebentzinoa ezinbestekoa dala gurean halakorik gertatu ez daiten. Lezaman ez dogu inongo eraso sexistarik, homofoborik edo errazistarik onartuko, eta horretan jarraituko dogu lanean".

"Azken urteotan jentearen parte hartzeak nabarmen egin dau gora eta horrek jaiak aberasten dauz"

Kurtzeko jaiek lekukoa hartuko dabe irailaren 13tik 15era. "Honeek be gero eta parte-hartzaileagoak dira eta eguneko festea oso polita da sukalki eta tortilla txapelketeakaz. Ganera, umeentzako ekintzak egongo dira zapatu goizean zein arratsaldean, eta Bocabeats Comedia taldeagaz barreak botatzeko aukerea izango da".

Jai-egitaraua

Irailak 1, domeka
–08:00 XIV. Lezamako Mugetatik mendi martxea.
–09:30 XIV. Lezamako Mugetatik lasterketea eta txikien martxea.
–11:00 Mezea.
–14:30 Adintsuen bazkaria.
Irailak 2, astelehena.
San Antolin
–12:00 Mezea.
–12:30 Kopaua, trikitilariek girotua.
Irailak 6, barikua
–18:00 Pelota partiduak: Andra Mari Txapelketearen finalerdiak (zaletuak).
–19:00 Kuadrillen jaitsierea, Mikel Zarate enparantzatik. Gaia: pelikulak/telesailak.
–19:30 Txupinazoa eta pregoia, Kurutze dantza taldearen eskutik.
–19:45 Poteoa, herriko tabernetatik, Sakatu elektrotxarangak girotua.
–21:45 Txosnak zabaltzea.
–22:00 Umeen mozorro lehiaketearen sariak banatzea.

KURTZEKO JAIAK
Irailak 13, barikua
–19:30 Batukada, Batukandra taldeagaz.
–21:30 Erromeria, Broken Izotz taldeagaz.
–Jatetxeetan eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.
Irailak 14, zapatua. Santa Kurtze
–10:00 Mahaiak eta aulkiak banatzea (txartelak erosteko azken eguna: irailaren 12a).
–11:00 Umeentzako tailerrak, goizean; eta jolasak, arratsaldean.
–11:30 Sukalki eta tortilla txapelketetarako izen-emoteak.

–22:00 – 00:00 Mozorrotuta dagozanentzat, 2x1 garagardo eta kalimotxo katxietan eta alkohol bako edarietan.
–22:00-00:00 Kontzertuak: Domezain + Hakima Flissi + Kartzarot + Mamagigis + Garilak 26.
–01:00 Nagusien mozorro lehiaketearen sariak banatzea.
–Jatetxeetan eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 7, zapatua

–11:00-14:00 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
–13:00 Poteoa, herriko tabernetatik, Kittu taldeak girotua.
–14:30 Herri bazkaria, Estankoaren eskutik. Txartelak herriko komertzioetan salgai, 10 euroan.
–16:00 Kantaldia, Kittu taldeagaz.
–17:00-19:00 Umeentzako puzgarriak, tailerrak eta diskofestea.
–19:00 Baldin bada kale antzerkia, herriko plazan.
–20:00 Ekidazu abesbatzearen eta UPV/EHUko abesbatzearen kontzertua, eleizan.
–22:00 Txosnak zabaltzea.
–23:00 Kontzertuak: Bad Sound + Huntza + Oxabi.
–Jatetxeetan eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 8, domeka. Andra Mari Eguna

–11:00 Mezea.
–11:00 Pelota partiduak: Lezamako pelota eskolako umeak eta Andra Mari Txapelketearen finala (zaletuak).
–11:45 Dantzak, Kurutze dantza taldearen eskutik.
–17:00 Xaibor diskofestea, herriko plazan.
–19:00 Dantza-plaza txosnagunean, Eingo taldeagaz.

Irailak 9, astelehena

–12:00 Mezea.

Irailak 10, martitzena. Bolalekuko jaiak

–14:00 Paella txapelketarako izen-emoteak.
–15:00 Paellak aurkeztea eta sariak banatzea.
–16:00 Mus txapelketea (20 euro bikoteko).
–17:00 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
–19:00 Txokolatadea, Goiko tabernaren eskutik.
–19:30 Erromeria, Gauargi taldeagaz.
–12:00 Mezea, ermitan.
–14:00-14:15 Sukalkia eta tortillak aurkeztea eta sariak emotea.
–14:00 Umeentzako bazkaria (txartelak erosteko azken eguna: irailaren 12a; 7 euro).
–17:30 Igel-toka txapelketea.
–18:30 Ikuskizuna: Bocabeats.
–21:30 Diskofestea: Peeter Pan dj.
–22:00 Bingoa eta afari-meriendea: solomo eta hirugiharra-ogitartekoak.
–Diskofestea.

Irailak 15, domeka

–12:00 Mezea, ermitan. Ostean, kopaua.
–Jaien amaierea.

Bocabeats

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA
EUSKARAZ BIZI JAIAK
BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

LA GUN KOR
AHOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABILEA
ZERBITZU BULEGOA
aretxalde, 68 - 48196 lezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.
Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144
Pentsu naturalak

OXANGOITI
Kutur Elkartea TABERNA
Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

The Beach Boys, Little Steven eta Paul Collins, nagusi; amaiera mingotsa



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Aurtengo BBK Music Legends festibala indartsu heldu da Olako zentrora, askoren gustuak asetzeko artistekin oholtzan. Ekainaren 14an, Amann & The Wayward Sons taldeak inauguratu zuen jaialdia gaztelaniazko rock-and-rollarekin. Euskal Herriko artisten artean, Anje Duhalde izan genuen ostean, amerikar kutsuko errepertorioa eskainiz. Jardunaldi erdian Suzanne Vega igo zen oholtzara, 80ko hamarkadako *Luka* eta *Gipsy* bezalako abesti entzutetsuak joz eta ikus-entzule bat baino gehiago hunkituz. Paul Collins Beatek *Let Me Into Your Life* eta *Rock 'n Roll Girl* bezalako kantak eskaini zituen Salamanca eta gertuko musikariek lagunduta. Egunaren amaiera The Beach Boysentzat izan zen, plater nagusia, zentsu literalean. Mike Love abeslaria bera publikoaren artean egon zen kontzertua hasi baino minutu batzuk lehenagora arte, gainerako kontzertuekin gozatzen. Oholtzara igo zenean aho bete hortz utzi zituen ikus-entzuleak, urte mordoa igaro arren, formazioak harmonia ezinezkoak egiten dituelako. Jendez gainezka zegoen Ola Zentroa, rock-and-rolleko dinosauroen kontzertu hau gozatzen. Txaloek eta garrasiek amaiera eman zieten lehen egun arrakastatsuari.

Bigarren egunean, Mississippi Queen & The Wet Dogs izan ziren festibala indartsu hasi zutenak, Aretha Franklin eta Amy Winehouse bezalako abeslariak omenduz. Watermelon Slim blues ortodoxoaren txanda zen eta 80 urte inguruko gitarra-jole eta abeslaria den Bill Homansek (edizio honetako musikari nagusienetarikoa). Mississippiko bluesa ekarri zuen gurera, bere ahots esanguratsu eta dantza ezinezkoekin. Ondoren, Kitty, Daisy & Lewis neba-arreba gazte multiinstrumentisten txanda izan zen, proposamen berriekin. Azken-aurreko kontzertua Little Steven and the Disciples of Soulsena izan zen. Askoren ustetan, jaialdiari Bruce Springsteenen gitarra-joleak eman beharko zion amaiera: Little Stevenek musikariak eta dantzariak eraman zituen oholtzara, gainerako kontzertuetatik nabarmenki urrunduz. Soinua eta ikuskizun faraonikoa bermatu zuen Little Stevenek. Azken kontzertua Ben Harperrena izan zen. Harperrek bere estiloari gogor eutsi zion, eta kalitateko kontzertua eskaini bazuen ere (kalitateko musikariek lagunduta), ezin izan zion eutsi Little Stevenen erritmo altuari, eta emanaldia Ben Harper ezagutu berri duten bikote maiteminduei zuzendutakoa zirudien, *Whipping Boy, Fight for Your Mind* eta *Keep it Together* bezalako abestiak nabarmenenak izanik. Inprobisaziorako denbora izan zuen Kaliforniakoak (gehiegi, askorentzat). Kontzertua bukatzean, jarraitzaile sutsuenek beste abesti pare bat jotzeko eskatu zioten, baina abeslaria ez zen agertokira berriro agertu, 2019ko jaialdia txistu eta garrasien artean itxita.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre
txoritokia

TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

2019-20 IKASTURTEA

MAILA GUZTIAK: HABEren A1-A2-B1-B2-C1-C2

–Astean 10, 6, 7,5 eta 4 orduko ikastaroak
–Astean 4, 3 edo 2 egunetan
–Ikastaro trinkoak eta Autoikaskuntza (astean behin)
–Ikasleen beharrizanetara egokitutako ikastaroak: gurasoak, merkatariak, mintzamena, perfilak..."

MATRIKULA ZABALIK: Irailaren 2tik 23ra

DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIAK:
–% 50 edo % 75 eskuragai.
–Txorierrin erroldatuentzat, langabetuentzat, erretiratuentzat...

BULEGO ORDUAK: 8:30-14:00 / 16:00-18:00

Euskararekin Match!
Egin gurekin bat

Herriko Plaza, 3 - DERIO Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 euskaltegia@txorierri.eu

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sentsazioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.

Elkar zaintzea

Zenbat bider entzun edo pentsau dogu "*nora doa hori holan jantzita, edo horregaz?; Bere adinean holan ez da ibili behar*". Nork esan deusku monogamia edo heterosexualitatea direla harreman naturalen estandarrak? Edo, "*ikusiko dozu heltzen jatzunean…*". Heldu zein, bildurra?

Gaur goizean, mendira joan naz. Ez kirola egitearren, baizik eta susmatzen nebana goitik ikusi ahal izateko. Katalejoak hartu eta herri bakoitzari begiratzean harresi txiki asko ikusi dodaz. Ez dot ulertu: gerran egongo ete gara?

Handik gitxira, pertsona batzuk agertu dira, adin guztietakoak, etxe guztietakoak, eta makurtuta harresietarantz hurbildu dira. Behin danak euren talde desberdinduetan batu eta gero, pergamino bana atara eta zeozer irakurri dabe. Pergamino guztiak, sinbolo bardinagaz atzetik. Idatziak gorde eta euren artean hasi dira harremanetan. Modu neurtuan, protokolozko barre eta elkarrizketakaz. Halan biziteko eta izateko arauak irakurtzen egon ete dira lehen?

Bizitzako arau gehienak guk geuk asmatu eta inposatzen doguz. Ez badoguz betetzen, txarto sentitzen gara edo ostaldu egiten dogu. Besteak direnean arauak bete ez dabezanak, nahiz ta gugaz zerikusirik ez euki, minduta sentiduten gara. Edozelan be, irrikan egoten gara okerkuntzak eta mailua mahai gainera atera eta epaiketa egiteko. "Dan, dan, dan! Saioa hastera doa."

Sinistu egin dogu izaki finituak garela, mugatuak, eta hori pertsona normalak izateko bete behar dan baldintza bat dala. Orduan, zer da normala izatea? Kanpoko onarpena eukitea, beharbada; gainerakoen oniritzian pentsatuz bizitzea, azken finean. Osterantzean, ez leuskigu minik emongo "diferentea zara", "zoratuta zagoz", "arraroa zara", "ez atentzioa emon" moduko etiketa eta epaiek. Jakina da ordena sozial bat mantenduteko asmatu direla etiketa negatibo horreek. Halanda be, gizartea parekide bihurtzetik urrun, preso bihurtzen dabe, kritikatzen dauena be bere bildurren preso da eta.

Menditik etorri eta mezu bat jarri dot plaza bakoitzaren erdian. Halan, irakurtzera hurbiltzean, harresietatik kanpora urten beharko dabe pergamino bakar eta kolektiboa irakurtzeko, bando barik. Eta batek daki: hasiera bat izen leiteke…

Herritarrok, bi gauza dagoz gure buruarengaitik eta besteengaitik egin ahal doguzenak. Merezi dozue.

1. Identifikatu. Arreta jarri zer/nor epaitzen dozun. Galdetu eta erantzun zeure buruari: Zergaitik epaitzen dot? Zelan sentidu izan naz kritikatu nabenean edo kritikatu ahal nabela jakin izan dodanean?

2. Ordezkatu. Kendu daigun "kuxkuxeatzeko" ohiturea eta ipini daigun martxan "ulertzea"; eta gero, gure egunerokotik kanpo dagoen, desbardin dan edo bildur minimo bat emoten deuskun hori bihotzez onartu. Geure sinesmenak inposatu barik, bestearen lekuan ipini gaitezan. Harreman osasuntsuak izan geinkez.

El catalá

t: Juan Luis Goikoetxea / a: leonhunter.com

Katalana geure hizkuntza propioa da– dio Lluís Maicas-ek[1] . Hori ziurtasuna da, inorekin eztabaidatzeko prest ez nagoen ziurtasuna. Beste kontu bat da katalanaren osasun egoera geure etxean. Sinplifikatuz esango nuke, akademikoki hobeto dagoela, eta sozialki txartoago. Lehen kasuan, eskoletan ikasten delako. Bigarrenean, erabilera sozial oso murriztua egiten delako. Errepresio linguistikoaren urterik gogorrenetan, alderantziz zen. Eskoletan galarazita zegoen eta erabilera maioritarioa zen kalean, etxean eta komertzioetan.

Migrazio-mugimenduek, aldaketa demografikoek ez digute mesederik egin, alderantziz baino, kalte egin digute. Prozesu globalek ere ez digute lagundu. Eta administrazioaren parte hartzea –hauteskunde enuntziatuetatik harago– *nostres* deritzan kasuan– epela izan da, edo hotza, edo ez da existitu. Kontuan harturik hizkuntza –gure kasuan katalana– dela kulturaren funtsezko oinarria, hizkuntza propiorik gabe ez da kultura propiorik.

Kultura sendoa eraikitzeko, hizkuntza historikoa indartu behar da, pertenentzia sentimendua kontsolidatu

Zeren hizkuntza ez baita kultura idatzia soilik, literatura, baizik eta identitatearen funtsezko arloa. Administrazioak katalanaren desagertzean lagundu egingo du, onartzen baditu hizkuntza propioa ikasteko salbuespenak, hau da, merituen eta eskakizunen arteko bereizketa konpontzea gerotik hurrengora uzten badu. Kultura sendoa eraikitzeko, hizkuntza historikoa indartu behar da, pertenentzia sentimendua kontsolidatu, geure identitatea ezagutzen lagundu. Kultura bat, hizkuntza gabekoa, errealitate objektiboaren apurketa da. Kimera hutsa.

(1) *Última Hora* egunkaritik jasoa; katalanetik itzulia.

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Etxeko sukaldaritza

Barazki- eta ganba-budina

t: Maite Lekerika / a: grupodecelis.com

Osagaiak (sei lagunentzat):
–Kipula bat (txikitua)
–2 porru (garbituta eta zerrendatan ebagita)
–200 g ziazerba (txikituak)
–300 g zerba (txikituak)
–300 g ganba (zurituak eta txikituak)
–4 arrautza
–400 ml esne-gain
–Orioa eta gatza

Prestetako erea:

Zerbak 12 minutuan irakingo doguz ur garitan. Eginda dagozanean ura kenduko dogu. Kipula eta porruak erregosiko doguz su eztitan. Ziazerbak gehitu, eta minutu pare baten erregosiko doguz. Arrautzak eta esne-gaina irabiauko doguz gatz apur bategaz. Barazkiak eta ganbak gehitu, eta dana nahastuko dogu.

Budinak egiteko moldea orioz igurtzi, eta uruna botako deutsagu. Nahastea moldera botako dogu eta labera sartuko dogu. Bertan 180 graduan izango dogu 45 minutuan. Labatik atera, eta hozten utziko dogu. Budina zerrendatan ebagiko dogu. Gura izanez gero, maionesagaz edo entsaladagaz lagunduta atera daikegu mahaira.

Hiru koloretako poloak

Osagaiak (lau lagunentzat):
–10 mailuki
–3 laranja
–3 koilarakada handi ezti
–2 kiwi
–Mango bat
–Jogurt bat eta erdi

Prestetako erea:

Laranjei ura aterako deutsegu eta laranja-ura iraziko dogu. Koilarakada ezti bat gehituko deutsagu, eragingo dogu eta gordeko dogu. Mailukiak garbitu, eta osagai honeekaz batera irabiauko doguz: jogurt erdi bat, koilarakada bat ezti eta laranja-uraren herena. Mangoa zuritu eta ebagiko dogu, eta aitatutako osagaiakaz nahastuko dogu: jogurta, eztia eta laranja-ura. Kiwiakaz be berdin egingo dogu.

Poloak egiteko moldeak beteko doguz, eta, horretarako, gura dogun ordenari jarraitu ahalko deutsagu: berbarako, lehenengo eta behin, mailukia; bigarrenez, mangoa; eta hirugarrenez, kiwia. Poloak izozkailura sartuko doguz lau orduan.

a: recetasdehelados.com

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: *www.doverpublications.com*

Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Nik sinesten dizut* (Elkar), Samara Velte Morán.
–*Egunero hasten delako* (Erein), Ramon Saizarbitoria.
–*Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (Elkar), Kattalin Miner.
–*Hezurren erretura* (Susa), Miren Agur Meabe.
–*Odola oroi* (Pamiela), Pablo Antoñana.
Itzultzailea: Luis Mari Larrañaga

LITERATURA: GAZTEAK

–*Ideia bat izan dut* (Ttarttalo), Herve Tullet.
–*Hartzak ez du lo egin nahi* (Ttarttalo), Jelleke Riktken.
–*Marimatrakak. Problemak biderkatzen* (Elkar), Ana Jaka Garcia eta Iosu Mitxelena Usain.
–*Mitxi udan* (Ttarttalo), Anita Bijsterbosch.
–*Hari single bat (Erein),* Idoia Garzes.
Ilustratzailea: Leire Urbeltz.

Sudokua

		7						
6	9	4					1	
3		1		7	8	5		4
		3						
7			4				9	
		5	3			7		1
			5			1	3	
			6	9				
								5

5	8	7	1	6	4	9	2	3
6	9	4	2	3	5	8	1	7
3	2	1	9	7	8	5	6	4
9	4	3	8	1	7	2	5	6
7	1	2	4	5	6	3	9	8
8	6	5	3	2	9	7	4	1
4	7	6	5	8	2	1	3	9
1	5	8	6	9	3	4	7	2
2	3	9	7	4	1	6	8	5

AIKOR! 194 | 2019ko uztaila
www.aikor.eus

Hitzaldiak

Larrabetzu

> Literaturaz berbetan: Miren Amurizaren *Basa* eleberria. Irailaren 19an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Zamudio

> Zen meditazioa. Irailaren 19an, 19:00etan, eskolako areto nagusian.

Lezama

> Spinning-a eta hipropesiboak. Izena ematea: irailaren 16tik 27ra.

Ikuskizunak

Derio

> Magia jaialdia. Irailaren 14tik 16ra.

Zamudio

> Umeentzako ipuin-saioa. Irailaren 21ean, 11:30ean, liburutegian.

Irteerak

Zamudio

> Europako mendiak (Potes). Irailaren 20tik 22ra, Arroeta mendi taldeak antolatua.
> Bertizko jaurerria. Irailaren 28an, Lagunandre elkarteak antolatua.

Lezama

> Tenako bailara. Irailaren 21etik 22ra, Gailur mendi taldeak antolatua.

Kirolak

Zamudio

> Zikloturista. Irailaren 14an, 09:30ean.

Larrabetzu

> "Larrabetzuko Uria" Trofeoaren 28. Edizioa: Uritarra-Zamudio. Irailaren 13an. Uritarra: Ohorezko mailaren lehen saioa. Irailaren 22an.

Musika

Larrabetzu

> Domekak Hori Bain: Birkit. Irailaren 22an, 18:30ean.

Jaiak

Derio

> San Migel. Irailaren 27tik urriaren 6ra.

Larrabetzu

> San Migel. Irailaren 29an.

Auzoetako jaiak

Aldekoneko jaiak
Derio

Uztailak 25, eguena. Santiago
–11:30 Kalejira.
–11:30-15:00 Txu-txu trena.
–12:30 Meza.
–13:15 Lainomendi dantza taldea.
–14:00 Paellak aurkeztea.
–16:30 Mus arina.
–17:30 Paella txapelketaren sariak ematea.
–17:30-19:30 Txu-txu trena.
–18:30-20:30 Dj kaktus.
–19:30 Tortillak aurkeztea.
–20:30 Tortilla txapelketaren sariak ematea.
Uztailak 26, barikua. Santa Ana
–11:30 Kalejira.
–12:30 Meza.
–13:15 Sukalkia dastatzea.
Uztailak 31, eguaztena. San Inazio
–11:30 Kalejira.
–12:30 Meza eta nagusientzako kopaua.
–13:15 Otxote.
–17:30 Umeentzako herri kirolak eta betiko jolasak.
–19:00 Giza probak.
–20:30 Eingo! taldea.
Abuztuak 3, zapatua
–12:00 Umeentzako ekintzak eta urjolasak.
–12:30 Meza.
–13:15 Kopaua.
–14:00 Sukalki txapelketa.
–16:30 Mus arina.
–18:00 Disko txiki festa: Larrima show.
–20:00 Sukalki eta mus txapelketen sariak ematea.
–20:00 Jaien amaiera: Los Malditos musika taldea eta txitxi-burruntzia.

Ituiño magoa

Santimami
Zamudio-Derio

Abuztuak 16, barikua
–12:30 Jaien hasiera eta txupin nagusia.
–14:30 Herri bazkaria.
–18:30 Kantu Kolore.
–21:00 Txitxi-burruntzia.
–21:30 Fanfarrea.
Abuztuak 17, zapatua
–11:30 Ginkana eta jolasak.
–12:30 Meza.
–13:00 Trikitixa, Bertokorekin.
–14:00 Sukalkia aurkeztea.
–16:30 XXIII. mus txapelketa.
–17:00 Umeentzako sukaldaritza tailerra.
–18:30 Zurezko irudiak, umeentzako zein helduentzako.
–20:00 Tortilla txapelketa.
–21:00 Sardina jana.
–22:00 Fanfarrea.
–00:00 Sorgina erretzea eta txokolatada.
Abuztuak 18, domeka
–11:30 Multikirola.
–12:30 Meza.
–13:00 Nagusientzako kopaua.
–Jaien amaiera eta agurra.

Sandoni jaiak
Zamudio

Abuztuak 30, barikua
–18:30 Txupinazoa.
–19:00 Ituiño magoa.
–20:00 Idi-probak.
–Txitxi-burruntzia.
–Erromeria, Kantarelux taldeagaz.
Abuztuak 31, zapatua
–12:00 Meza.
–13:00 Hiru Bat dantza taldea.
–14:00 Paellak aurkeztea.
–16:00 Mus txapelketea.
–Paella eta mus txapelketen sariak banatzea.
–Txitxi-burruntzia.
–Berbena herrikoia, Joxe Mendizabalegaz.
–Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, egun osoan zehar.
Irailak 2, astelehena. Sandoni
–12:30 Mezea, ermitan.
–Nagusientzako omenaldia eta kopaua.

LARRABETZUKO JAIAK 2019

15 urtean topeka!

ANDRAMARIEK ABUZTUAK 13, 14, 15 ETA 16

SAN BARTOLOME ABUZTUAK 24

EMETERIEK ABUZTUAK 30, 31 ETA IRAILAK 1

INTXURRETA JAI BATZORDEA

LAGUNTZAILEA

LARRABETZU Herri taupada

bertoko

musika-tresnak eta kultura

Matrikula eguna:
irailak 10, 19:30ean

689 24 68 44
bertokozamudio@gmail.com
https://www.facebook.com/bertokozamudio.soinutresnenelkartea
Instagram
Zamudio Udala